ttipi-ttapa
TOKIKOM
2017ko urtarrilaren 26a | XXXVII. urtea | **678**. zenbakia
erran.eus



Iñigo Martinez eta Ander Errandonea ➔ 42-43

**Gehigarri bereziak**
Oihangintza eta inauteriak

**BORTZIRIAK ➔ 15**
Herri-galdeketa egiteko sinadura bilketa abian

**ARKUPEAK ➔ 28**
Ikastaroetan izen-ematea ilbeltzaren 31ra arte

**LEITZA ➔ 30**
Mendi Erronkan izen-ematea otsailaren 1ean zabalik

**URDAZUBI ➔ 38**
Egonezina Landibar auzoko proiektuarekin

**ATAL BERRIA TTIPI-TTAPAN**




# Jolastu gurekin!

Hemendik aitzinera, etxeko ttikienentzat jolasak izanen dituzue Plazan Bazan Ttipi-Ttaparen atal berrian. Aldiro-aldiro denborapasekin gozatzeko aukera izanen duzue.



**ELKARRIZKETA ➔ 3**

*Su galduaren bila* proiektua landu du **Aitziber Almandoz** aranztarrak

**ERREPORTAJEA ➔ 4-5**

## Baztango kontuak ikergai

Baztango Mutildantzak, turismoa eta XVII. eta XVIII. mendeetako jauregiak ikertu dituzte Oihana Otxandorena, Alaitz Arretxea eta Josune Berho baztandarrek.



**ETXALAR ➔ 13**

Hilarriei buruzko liburua kaleratu du **Pello Apexetxeak**

ZOZKETAK ➔ 52




Erabili **Ttipi txartela** *probextu aukera!*
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan
Atera TTIPI TXARTELA hemen


EN plus A1
ES 025
BEROPEL
egurrezko pelleta
ECHEVESTE HNOS. SL
T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com


Edau magiko bat egun magiko baterako
Haur guztiek beren jaunartzea ospatu nahiko luketen lekua
Toki ikusgarria, gastronomia zaindua duena, haurrentzako jardueraz beterikoa, zu bazkalondoan goxo-goxo zauden bitartean. Edo nahiago al duzu haurrekin batera abentura bizitzea?
Proposamenak bakoitzaren neurrira. Deitu eta finkatu zure hitzordua. Etortze hutsagatik, EmoZiona esperientzia bat oparituko dizugu.
Informazio gehiago: T. +34 948 928 922 • www.irrisarriland.eu • Igantzi. NAFARROA
IrriSarri LAND

Ikasketaz eta lanbidez fisioterapeuta da Aitziber Almandoz Larralde (Arantza, 1984) eta aspalditik ari da lanean haurrekin, Hezkuntza publikoan eta bere gisara. Hain zuzen, «hezkuntza publikoan ikusten nituen beharrek begiak ireki» zizkiotelako arnas fisioterapian espezializatu da. Duela gutti horri lotuta ipuina kaleratu du: *Su galduaren bila*. Berak zuzendu du arnas fisioterapiako teknikak azaltzen dituen ipuina: arnasketa egoki baterako ariketak bildu ditu, marrazkiak ere baditu, eta guztia borobiltzeko kanta bat.

**Aitziber ALMANDOZ LARRALDE** | 'Su galduaren bila' proiektuaren egilea

# «Gure baitan dago gure gorputza aditzea eta ipuinak hori islatzen du»

**G. PIKABEA** | ARANTZA



ARGAZKIA: G. PIKABEA
Aitziber Almandoz Larralde aranztarra, *Su galduaren bila* ipuina eskuetan duela.

**Nolatan sortu zitzaizun ipuina egiteko ideia?**
Betitik izan dut buruan. Behin, sutondoan, etxeko ttikia tratatzen ari nintzela, bere senidearentzako ipuin bat asmatu nuen, egiten ari nintzena euren mundura egokitu nahian. Ez da ipuin hau zehazki, baina hortik hasi zen guztia. Gero, Cadizen Lovexair Fundazioak antolatutako arnas fisioterapiaren inguruko lehiaketa irabazi genuen. Arnasketa arazoak eta biriketako gaixotasunak dituztenei eta hauen zaintzaileei eta osasungintzako profesionalei laguntzen dien erakundea da. *Arnas Fisioterapia Hezkuntzan* lana aurkeztu nuen eta ahoa eta begiak bakarrik mugitzen zituen Angel haurrarekin egindako lana kontatu nuen. Elkar ezagutu genuenean ez zuten sekula ospitaleratu, eta gainera, sari bat eman ziguten. Angeli ipuin bat zor niola pentsatu nuen. Eta kasualitatez, lagun baten bitartez, Ixabel Milleten berri izan nuen. Proiektua interesgarria iruditu zitzaion. Pare bat aldiz elkartu ginen, zer nahi nuen azaldu nion, eta berak ipuina idatzi du.

**Zein helburuarekin egin duzu ipuina?**
Arnas fisioterapiako teknikak azaltzen dituen ipuina da, baina proiektuak helburu aunitz ditu. Alde batetik, gurasoak inplikatzea nahi dut, baita haurrak arnas fisioterapiara hurbiltzea ere eta bere mundutik ulertzea zer egiten ari garen, zerbait arrotza izan ez dadin. Eta bertzetik, *Su galduaren bila* ez da mukiak dituzunerako bakarrik. Denok badugu barrenean sua eta tarteka galdu egiten dugu. Gure baitan dago gure gorputza aditzea, gu gara gure osasuna eta gure sua, eta sua galtzean guri dagokigu zerbait egitea. Batzuetan denok behar dugu norbaiten laguntza galdutako su hori bilatzen laguntzeko eta ipuin honek hori islatzen du. Arnasketa egoki baterako haur jolasak ageri dira, margotzeko marrazkiak ere bai, eta bukatzeko kanta bat, Oskar Estanga eta biok egina.

**Zer da haurren arnas fisioterapia?**
Haurren arnas bideak estaltzen dituzten mukiak garbitzea da, hartara, gaitzak ekiditeko. Birikak ez dira 12 urte bitarte garatzen eta arnas aparatua guztiz eratu gabe dagoenean, aisa ixten dira, eta gainera, birika ttikiak mukiez estaltzen direnean, egoera gero eta zailagoa bihurtzen da. Ezin da ume bat asmatikoa dela edo bronkiolitis kronikoa duela erran, 12 urte izan arte, ordura arte nahikoa asti baduelako garatzeko. Arnas fisioterapiarekin infekzioa lehenago garbitzen da. Frantzia edo Belgikan, adibidez, bronkiolitisak, bronkitisak edota pneumoniak sendatzeko ezinbertzeko jarduera da aspaldítik. Hemen oraindik gaia arrotza da.

**Arnasketa arazoen aitzinean zein izan daiteke gakoa?**
Gizakia ezaugarri aunitzek osatzen dute: bizimodua, elikadura ohiturak, emozioak, harremanak, familia, genetika... Gure arnas aparatua behar bezala garatzeko alderdi horiek guztiak landu behar dira. Ez du balio alderdi afektiboa behar bezala garatzeak elikadura ez bada egokia. Gaitza ume horrek komunikatzeko duen modua da. Ume hori, muki horiekin, zerbait adierazten ari da. Birikei lotutako emozioak segurtasunik eza, beldurrak eta izuak dira eta sinetsi egin behar dugu birika horiek lehenxeago edo geroxeago sendatuko direla. Gurasoek ere konfidantza izan behar dute umearengan, lasaitasunez jokatu, laguntza eskatu eta informazio egokia jaso. Ume bakoitza mundu bat da, eta birika batzuk goizez %100ean egoten ahal dira, eta bi ordutara desorekatu. Haurrekin bizitzako alderdi guztietan gerta daiteke hori, baina birikekin berehalakoa da.

**SU GALDUAREN BILA**

**«Ipuina ez da mukiak ditugunerako bakarrik. Denok badugu barrenean sua eta tarteka galdu egiten dugu. Gure baitan dago galdutako su hori bilatzeko zerbait egitea»**

**PROIEKTUAREN EGILEAK**

**Proiektua Aitziber berak zuzendu du, Ixabel Milletek idatzi, Hodei Hernandok ilustrazioak egin ditu eta kanta Oskar Estanga eta Aitziberrek egin dute. «Jende aunitzen laguntza izan dut eta denei eman nahi dizkiet eskerrak».**

ttipi-ttapa | 678 zk.
2017.01.26

GIZARTEA ➜ BAZTAN IKERGAI

# Baztango kontuetan sakonduz

## Mutildantzak, turismoa eta XVII. eta XVIII. mendeetako jauregiak ikertu dituzte hiru neska baztandarrek

**Oihana Otxandorena, Alaitz Arretxea eta Josune Berhoren ikasketa bukaerako lanak dira eta Baztango Udalak diruz lagundu diru hirurak. Aldaketa handien garaian, etor daitezkeen aldaketei aurre hartzeko oraingoa ulertu eta aztertzea beharrezkoa dela uste baitu Udalak.**

G. PIKABEA

Baztandar gazteak beren ikasketekin Baztanen alde inplikatzea nahi zuen Baztango Udalak, eta horregatik egin zuen Nafarroan aitzindaria den apustua: 2.000 euro onartu zituen Baztan ikergai zuten baztandarren ikasketa akaberako lau lan diruz laguntzeko. Bakoitzari 500 euro ematea aurreikusi zuen, nahiz eta azkenean hiru aurkeztu: Oihana Otxandorena, Alaitz Arretxea eta Josune Berho.

«Aldaketa handien garai hauetan gure herri ttipia ulertzeko eta, ahal dela, etorriko diren aldaketak norabide positiboan bideratzeko da beka». Halaxe azaldu digu Joseba Otondo Baztango alkateak: «ondoko urteetan gure bizitzeko modua errotik aldatuko da. Aldaketa horiei aitzineratzeko, oraingoa ulertu eta aztertzea beharrezkoa da. Euskal Herri eta mundu mailako azterketak beharrezkoak dira, baina herri mailakoak ere bai». Baztandar gazteak «gure komunitatearen garabidean inplikatu» nahi dituzte: «norberaren ikasketa arlotik Baztan hobe ezagutu eta ulertzeko ekarpena egin dezatela». Otondok argi baitu «etorkizuna bailarako belaunaldi eta herritar guztien artean eraikitzen dugu, zaharragoek eduki dezaketen esperientziarekin eta gazteen begirada fresko eta berriarekin».

DEIALDIAREN ARRAZOIA

«Gure herri ttipia ulertu eta etorriko diren aldaketak norabide positiboan bideratzeko da beka».

«Ohartu orduko, Baztani buruzko azterketa garrantzitsua izanen dugu».

Joseba OTONDO
Baztango alkatea

### BALORAZIO ONA

Aurkeztutako lanen inguruan «balorazio aski ona» egin du alkateak. Batetik, «gaien aniztasuna» nabarmendu du: «hori bilatzen dugu, Baztani buruzko begirada osoa, konplexua». Bertzetik, «lanen kalitatea» aipatu du: «hirurak ere, lantzen duten gaia fundamentuarekin egin dute, eta bakoitzak bere azterketa ongi borobiltzen du».

Baldintzetako bat lanak jendearen aitzinean aurkeztea zen eta «dimentsio publiko» hori ere azpimarratu du: «ezagutza elkarbanatzeaz ari gara, Baztango oraingo egoeraren eta etorkizuneko erronken gaineko kontzientzia hartzeaz, herritarrok gure burua janzteaz eta hezteaz».

Deialdia berritzeko asmoa dute. Hala, «ohartu orduko, Baztani buruzko azterketa corpus garrantzitsua izanen dugu».

Oihana OTXANDORENA DORREGARAI. Elizondo (22 urte)

## «Dantzan zein egunerokoan posible da tradizioaren gainetik jauzi egitea, neskak eta mutilak elkarrekin»



**IKERKETA LANA**
Tradizioa eta generoa: Baztango Mutildantzak.

Baztanera bizitzera joan zenean piztu zitzaion Mutildantzen inguruko interesa Oihanari: «behin, Elizondoko bestetan Mutildantzak ikusitakoan konturatu nintzen gaiaren inguruan zegoen arazoaz». Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Antropologiako gradua ikasten ari zenean hasi zen gaian sakontzen. «Taldekako proiektu batean Mutildantzak ikertu genituen». Hura akituta, ez zuen alde batera utzi gaia: «Baztango herriko bestetara joaten jarraitu nuen, egoerak nola jarraitzen zuen jakiteko». Gradu bukaerako lanean ere, kontu honi heldu zion.

«Baztanen Mutildantzengatik sortu den polemikaren azterketa egitea» izan da helburu nagusia. Horretarako, pentsamendu desberdinetako jendea elkarrizketatu du, baita «eraso testigantzak» bildu ere: «Baztango plazetan dantza hauengatik erasoak izan direlako».

Hiru ondorio nagusi atera ditu: **1. «Baztanen garrantzia duten dantzak** dira»: «nahiz eta gerrak, modak... Mutildantzei egoera zaildu, herritarrek iraunaraztea lortu dute eta egun indar handia dute». Bere hitzetan, «tradizioz boterearekin zerikusi handia izan dute», eta «honek irautearekin badu zerikusia».
**2.** «**Arazoa generoa** da»: «tradizioa guztiz aldatu da. Mutilek bakarrik dantzatzetik gizarte osoak dantzatzera pasatu dira». Zera gaineratu du: «inork ez du kritikatu 70 edo 14 urteko gizonezko batek plazan Mutildantzak dantzatzeagatik. Kritikak soilik emakumezkoek jaso dituzte». Bere irudiko, «Mutildantza tradizionala babesten dutenek asmatutako tradizio bat babestu nahi dute, hau da, emakumezkoak sartzen ez diren baina gainerako guztiek parte hartzen ahal dituzten Mutildantzak».
**3.** «Plazan dantzatzen diren Mutildantzetan gizonek **gizontasunaren errepresentazioa** egiten dute»: «emakumeen aitzinean beren maskulinotasuna erakutsiz eta bertze gizonen artean prestigioa. Honela, gizonek eremu publikoa monopolizatzen dute. Baina emakumezkoek dantzatzean, genero bereizketa honen erranahi sinbolikoa irauli egiten da. Bi sexuek leku berdina hartzen dute plazan, espazioa parekidea bilakatuz».

«Mutildantza tradizionala ez da mantenduko, egungo pentsamendu eta bizitzarekin bat ez datorrelako. Hortaz, dantzaren pribatizaziora iritsi da».

Alaitz ARRETXEA ETXEBERRIA. Berroeta (23 urte)

# «Gero eta turista gehiago badaude, hauen inguruan azterketa sakonago bat egin beharko litzateke»



**IKERKETA LANA**
**Turismoaren eragina Pirinioetako haran baten ekonomian: Baztan.**

Zenbakiak maite ditu Alaitzek, eta zaletasun horri tiraka egin ditu Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduko ikasketak Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ez da damutu egindako aukerarekin, «kontent» dago, «ekonomia eta enpresen inguruko gauza aunitz ikasi ditut». Ez hori bakarrik. Etxeko kontuen berri gehiago ere ikasi du: Baztango turismoak bertako ekonomiari zein ekarpen egiten dion aztertuz akitu baititu ikasketak. Bi zaletasun uztartu ahal izan ditu proiektu honetan: bidaiatzea eta zenbakiak: «betidanik bidaiatzea gustatu zait eta lan honek leku desberdinetako turismoaren inguruan interesatzera bultzatu nau. Bertzetik, azken urteetan Baztanen sumatu dudan bidaiarien hazkundean pentsatzen jarrita, zenbaki errealetan ikusi nahi nuen, nire usteak datu bihurtu eta hipotesiak egiaztatu».

Landa turismoa izan du aztergai batez ere, baina espainiar estatuko eta Nafarroako datuak «aunitz» aipatu omen ditu «landa turismoa eta Baztango datuak zehazki lortzea ia ezinezkoa egin zaidalako». Datu saila izan ditu esku artean: «gehien erabilitako datuak landaturismoko bidaiarien kopurua eta hauek leku geografiko bakoitzean emandako eboluzioa izan dira». Ekonomia alorrean, berriz, Barne Produktu Gordina, langabezia-tasa, landa-turismoan lan egiten dutenen datuak... aztertu ditu.

> «Arras ideia ona da Udalak halako proiektuak laguntzea»

> «Deialdi honi esker orain arte konturatu ez ginen aukera berriak ager daitezke eta honekin bailaran aldaketa ttiki batzuk eman».

Zenbakiak goiti eta beheiti ibili ondotik, «oraingoz landa-etxeetatik bakarrik ezin dela bizi» ondorioztatu du. «Landa-etxeetan lan egiten dutenen %70ak behintzat bertze lan bat behar du bizitzeko soldata lortzeko». Are gehiago: «Baztanen eta zonaldean landa-etxeek duten famarekin, 25 urteotan (Baztanen landa-etxeak daudenetik) ez da turismo garrantzitsu honen inguruko bertze lanik egin. Gero eta turista gehiago badaude, hauen inguruko azterketa sakonago bat egin beharko litzateke, hauek baitira gure zonaldeko ekonomiari laguntzen diotenetako batzuk».

Josune BERHO GOÑI. Lekaroz (24 urte)

# «Eraikin batean atzealdean historia eta istorio anitz daude eta arkitekturaren kanpoko itxurarekin islatzen dira»



**IKERKETA LANA**
**XVII eta XVIII. mendeetako Baztango goi-mailako etxebizitza tipologia.**

«Gustatzen zitzaidan bakarra hori zelako» ikasi zuen Josunek Artearen Historia Euskal Herriko Unibertsitatean. Baina gaia hain zabala izanda, ikasketa horietan «ideia orokor bat egiteko beharrezkoa dena ikasten dugula» kontatu digu. Berak, ordea, «Baztanen daukagun ondare artistikoaren inguruan murgildu nahi nuen». Eta halaxe egin zuen ikasketa bukaerako proiektuan.

Hainbat bibliografia aztertuz, web orriak kontsultatuz eta baztandarrekin hitz eginez lortu du lana osatzeko informazioa. Horrekin batera, «jauregiak ezagutzeko landa azterketaz baliatu naiz eta Baztango herri guztietan barrena ibili naiz argazkikamararekin irudi bila».

Etxebizitzetan «eboluzioa» antzeman du: «bordak, baserriak, etxaldeak, dorretxeak eta jauregiak bereiz daitezke. Tradizioari lotutako arkitektura dira, baina XVII. eta XVIII. mendeetan etxebizitza arkitektura berri bat agertu zen». Honela azaldu digu: «mende horietako Baztango goi-mailako gizarteak jauregi tipologia berri bat eraiki zuen. Izan ere, garai hartan, Baztango familia dirudunetako kide aunitz kanpora joan zen». Madril azpimarratu du. «Hauen helburua aberastasuna lortzea zen, eta bakar batzuk lortu zuten. Lortutako aberastasunaren zati haundi batekin beraien etxeak zaharberritu edo berritik eraiki zituzten. Baztan ondare artistiko bereizgarri batekin hornitu zuten».

> «XVII. eta XVIII. mendeetako fenomeno sozioekonomikoari esker, Baztan ondare artistiko bereizgarri batez hornitu zuten».

Bertze datu bat gehitu du: «Baztango ekonomiaren pilare garrantzitsuena abeltzaintza zen eta etxebizitzetan beren lekua zuten. Baina jauregiotan zenbaitetan abereak etxebizitzatik kanpo gelditu ziren, eraikin independenteetan edo kanpoan. Kanpoko estetikaren bidez, animalien presentzia disimulatzen saiatu ziren». Formari dagokionez ere «berritasunak» ikusi ditu: «oinplano karratuak, balkoiak, leihoen ugaritzea, armarri ikusgarriak fatxadetan...».

Eraikin hauek belaunaldiz-belaunaldi bizirik irauteaz gain, «leinuaren garrantzia aldarrikatu dutela» ondorioztatu du: «familiaren bilgune bereiziezina izateaz gain, gizartearen aitzinean erakusleiho nabarmen bat da. Binomio bereiziezin baten aitzinean gaude».

ttipi-ttapa | 678 zk.
2017.01.26



Nire txanda

Fernando ANBUSTEGI

# Idorterik ez, faborez!

Euri aunitz egiten du gure eskualdean; bataz bertze, urtean 185 egunez euri tantak jasotzen ditugu. Nahiko hezea da. Baina aspaldian bertako idortearen ondorioak aztertzen aritu naiz. Bai, idortea, bai. Jendeari eragiten dion idortea. Patologia hau gero eta jende gehiagok pairatzen du. Larria da, nire ustez. Karrikan jendearekin gurutzatu eta agurtzen ez duen jendeaz ari naiz. Hainbertze kostatzen al da agur erratea? Aio, iepe, epa, gero arte…deus erran gabe lepoa goratzearekin ere aski da. Noski, ulertzen dut, zaintiraturen bat eragin dezake…zergatik ez du jende batek agurrik erraten? arazoa ni naizela pentsatu dut, baina erran didatenez, ez. Edo beharbada bai, baina ez da hori arazo bakarra. Bertzeei ere ez diete agurrik egiten. Jende idorraren patologia da. Kutsakorra ote da? Tratamenturik ba ote du? Badaezpada…aio! agur, gero arte! Ieup!

> «Jende idorraren patologia da. Kutsakorra ote da? Tratamenturik ba ote du?»

Ezpala

Aitor AROTZENA

# Erosi orain edo negar egin gero

Eguberrietarako erosketa sukarraren, Errege egunaren ondoko beherapenen eta ilbeltzeko malda gogorraren *izpiritua* laburbiltzen duen esaldia Donostiako merkataritza zentro batean. Ez horrela zehazki, denek ulertzeko moduan baizik: *Buy now or cry later*. Garai dizdiratsu honetan, erostearen aurkakoa ez baita saltzea, aurreztea, edo, bertzerik gabe, ez erostea, negar egitea baizik.

## Nabarmentzekoak



Pello APEZETXEA

Etxalarko hilarriak hizpide

*Joandakoen oroigarriak, Etxalarko hilarriak* izeneko liburua argitara eman berri du herriko apezak. Eliz inguruan dotore ageri diren hilarriak ez ezik, harrespil eta trikuharriak ere hizpide.



ENDIKA Urrutia

Masterrean txapeldun orde

Estu hartu zuen Urriza handia Master txapelketaren finalean, baina azkenean 30-24 galdu zuen. Halere, buruz buruko txapelen bat eskura dezakeela erakutsi du saldiastarrak.



Ane BERGARA

Berako futbolaria omendua

Berako Matzada futbol zelaia zaharberritu dute eta aitzaki horrekin, ongi merezitako omenaldia eskaini diote ilbeltzaren 21ean gaur egun FC Barcelona taldean ari den herriko futbolariari.

Atzera begira ➜ 2002-I-10 TTIPI-TTAPA 317 zk.



## Gorreria ezagutzen Tere Bielsa elizondarrarekin

Gorreria edo sorreria, ikusten ez den minusbaliotasuna da. Horregatik, duena baino garrantzi ttikiagoa ematen diote aunitzek. Baina arazoa hor dago, eta gizarteak ezer gutti egiten du gorren bizi kalitatea hobetzeko. Errealitate hori ezagutzeko, duela 15 urteko erreportajean Tere Bielsa elizondarraren esperientziaren berri eman zuen TTIPI-TTAPAK. 1993an meningiti baten ondorioz gortu zen eta ezpainak irakurtzen ikasi zuen. «Nire adinarekin ez naiz hasiko eskuko zeinuen hizkuntza ikasten, jendeari mantso solasteko eskatzen diot eta gehienetan ulertzea lortzen dut. Pizarra bat eramatea okerragoa da medikuen arabera» zioen.

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • **info@ttipi.eus**

CC BY SA

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Eredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

**2017ko harpidetza sariak**

| | |
|---|---|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 36€ |
| Leitza | 22€ |
| Hego Euskal Herria | 42€ |
| Ipar Euskal Herria , Europa | 75€ |
| Amerika eta Australia | 130€ |

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

mecna

Kolaborazioak

# Esne sektoreari bertze ostiko bat

Aitor AZKARATE (EHNEko kidea)

Gure lurretan batez ere ardiak behiekin batera izan dira protagonistak eta haiekin batera beraiekin bizi izan garenak. Ingurura ederki egokitu dira eta poliki-poliki lurraldeari duen itxura zoragarria ematen lagundu die.
Lehendabiziko sektorea azkeneneko bi-hiru hamarkadetan aktiboak galdu eta galdu dabil. Izan dugun azkeneko berria, esne sektorearendako bertze ostiko bat izan da, izan ere, Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Larraungo zazpi abeltzanei apirilaren 1etik aitzinerat Danonek ez omen die esnea gehiago bilduko. Urtez-urte, egunez-egun, nekazariek enpresa honi, ttentte-ttentte esnea saldu diote behin ere prezioa (Danonek beti esnearen prezioa jarri baitu) eztabaidatu gabe. Horretaz gain ez diote bertze enpresei saldu eta gainera kalitatezko esnea ekoiztu dute. Orduan zergatik uzten diote esnea biltzeari? Etxalde hauek esne salmentatik dute beraien ogibidea, zein baldintzetan gelditzen dira? Ez dago eskubiderik!!! Sektorea, berez gainbeheran dago eta badirudi, zazpi baserritar hauetatik hiruk behinpin, dagoeneko esnetako behiak saltzeko erabakia hartu dutela.

«Lehendabiziko sektorea azkeneko bi-hiru hamarkadetan aktiboak galdu eta galdu dabil. Izan dugun azkeneko berria, esne sektorearendako bertze ostiko bat izan da, izan ere Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Larraungo zazpi abeltzainei apirilaren 1etik aitzinerat Danonek ez omen die esnea gehiago bilduko»

Esne kuota izan den bitartean esne ekoizpenak muga honi egokitu izan dira eta ondorioz prezioak nahiko egonkor mantendu dira. 2015eko apirilaren 1etik geroztik esne ekoizpenak mugarik ez duenez, hauxe da gertatzen ari dena. Merkatuaren arau gordinen esku gelditu gara, hau da, merke ekoiztu dezakenak ekoiz dezala esnea, hauxe baitzen juxtu hainbait inbertsorek amesten zuten egoera. Mendialdean ez dugu modelo honekin jaus egiterik, hemen ez baitira 20.000 behiko ustiapenentzako, ez tokirik (Soria inguruan dirudienez badago hortarako lekua) ezta nahirik ere. Soriako Noviercas herrian egin nahi duten ustiapenaren gibelean Nafarroako kooperatiba bat dago, modelo honek ez du jaus ikustekorik gure baserriekin. Proiektuak aintzinerat jarraituz gero, landa eremuetako baserrien desagertzearen atarian egon gaitezke, hau da, deslokalizazio garbi baten aintzinean gaude.

Esnea soberan dagoela ematen duenez, Soriako behitegi horretan 240.000 tona esne ekoiztea aurreikusten da, beraz, bertze inguruetan esne hori sobran litzateke. Guk defendatzen dugun familiarteko etxealdeei eraginen liezaiokete eta honela ondoko urteetan bertze baserrien ateak ixtea ekarriko luke. Guk ezin izango baitugu behinere esne merkerik ekoiztu, etxaldeak ttikiak dira eta hori Danoneri adibidez, ez zaio batere komeni esnea biltzea garestiago kostatzen omen baitzaio. Baino ez dugu atzendu behar mendi inguruko baserriek bertze onurak dakarzkigutela, hala nola, inguruaren kudeaketa, lanpostuak (zuzenak eta zeharkakoak), landa eremuetako herri ttikien mantentzea, kultura, ohiturak, hizkuntza etabar luze bat.
Beraz, bi arazoen aurrean gintezke, batetik esnearen ekoizpenaren kontzentrazioa eremu jakin batean eta bertzetik, ustiapen erraldoi hauek arrakasta izanez gero, bertze sektoreetan (ardiak, haragitako behiak, barazkiak…) gauza bera pasatuko litzateke, familiarteko etxaldeak egoera ahulean gelditukoliratekenean.
Bada, gizarteak zeozer egin behar du merkatuaren legeen izenean desagertarazten ari diren etxaldeak mantentzeko, arazoa ez baita bakarrik esne sektorean gertatzen ari, lehendabiziko sektore guztian baizik. Familiarteko baserriak indartu behar ditugu eta gurea bezalako eskualdeetan beharrezkoak direla ohartu beharko ginateke. Denok egin baitezakegu zerbait, kontsumitzea ere erabaki politikoa delako, hortaz esnekiak erosten ditugunean edo bertze edozein elikagai bi aldiz pentsatu beharko genuke, Danone edo halako modelo neoliberala defenditzen duten enpresen produktuak begien aintzinean dugunean. Eta ez oroitu bakarrik Danoneren iragarkian agertzen den irribarreaz, ze panorama utzi dezaketen gurea eta gureak bezalakoak diren eskualdeetan baizik.

«Familiarteko baserriak indartu behar ditugu eta gurea bezalako eskualdeetan beharrezkoa direla ohartu beharko ginateke. Denok egin dezakegu zerbait, kontsumitzea ere erabaki politikoa delako»

Akitzeko, hasieran aipatu bezala, gure bazterrak hobetzeko edo behinik behin dauden bezala mantendu ahal izateko lehenbiziko sektorearen beharra daukagu. Horretaz gain ekonomia, kultura eta gureak diren herri ttikien bizi iraupenerako ere baliagarria izango da, honela ardiak, behiak eta abeltzanak, doike, urte luzez jarraitzeaz gain, ondoko belaunaldiei ilusioa eta sektorearen garrantzia transmitituko diegu.

## Irakurleak mintzo

# Euskal kantu zaharren familia

Jon BARANDIARAN (Elgoibar)

Iragan azaroaren 26an ospatu genuen urtero bezala, honakoan hamairugarrenez, horren maite dugun festa. Aspaldiko urteetan bezala, hau ere Urdazubiko Dantxarinea auzoan, Venta Peio barnean dagoen Lugarana jatetxean.

Lerro hauen bidez, festa zoragarri hau posible egiten duten guzien lana eta ekimena txalotu nahi nituzke:

Sortzaile eta antolatzaile nagusi den Angel Mariezkurrena eratsundarra aipatu behar lehenlehenik, bai eta laguntzaile nekaezin eta tronpetalari bikain den, Aitor Ibarra sunbillarra ere.

Aipamen berezia merezi dute halaber musikariek; Joxe Angel Elizalde, Amaiurko akordeoilari finak eta bere kide guziek; Frantxix, Cristian, Txema, Iban… jendearen kantu eta dantza gogoei beti adeikor.

Angelek urtero sartzen ditu berritasun eta ezustekoak, eta azken ekitaldi honetan ere izan ditugu: Euskal Herria eta Eskoziaren anaitzea, besteak beste. Egiaz, berezia gertatu zen "bake mina" kantaren airearekin gaitaren doinu sarkorra eta jendearen ahotsen bategitea.

Baina aurtengoan, une gogoangarriena, Angelek bere amari eskaini zizkion bertsoena izan zen. Bertso soilak ziren, estalki apaindura gabeak, bihotz barnetik sortzen diren mintzoei sobera baitzaizkie apaingarri hutsalak. Mementu horretan han geunden guziok izan ginen Angelen familia osoaren hunkiduraren lekuko. Nolabait, guztiok sentitu ginen familia hartako kide.

Zinez une hunkigarria, bai! Baina, hori bakarrik ote? Hortik abiatuz bururatu zait, agian, festa eder hau ospatzen dugun guziek familia handi bat osatzen dugula jada. Familia bat, Leitzako Dantzari eta Zubietako joaldunekin batean; familia bat, Bankako Menditarrak taldeak eta beste artista gonbidatuek bezala; familia bat, Lugarana jatetxeko langileak ere barne hartzen dituena… Angel Mariezkurrenaren kantuzaletasunak, kantua herrira eta herria kantura erakartzeko ahaleginak, bildu duen familia.

Festaren bukaerako unea ere, beti bezala, zirraragarria gertatu zen. Denak elkar besarkaturik "Xalbador bere heriotzean" eta "Agur Jaunak" kantatuz. Nere parean, mahaiaren bestaldean zegoen neska batek, arras hunkiturik, eseri eta malkoak ezin izan zituen eutsi. Haren inguruan geundenok, familia batek ohi duen bezala jokatu genuen une hartan; eztiki hartu eta maitasunez animoak ematen ahalegindu ginen, "hurrengo urtean hemen berean elkartuko gara berriz" esanez.

# Nik ere salatzen dut

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ (Auritz)

Nik ere gogor eta indar guztiekin salatzen dut Espainiako eta Frantziako Gobernuek mantentzen duten egoera gaizto eta maltzurra euskal preso, deportatu eta atzerriratuekin, arrazoi hauengatik:

1-. Gobernu horiek ez dituztelako betetzen Europako lege, araudi eta gomendioak, gai hauetan.

2-. Gobernu horiek lege ez-demokratiko batzuk asmatu eta inposatu zituztelako, presoak, deportatuak, ihes egindakoak eta beren familiak gehiago zigortzeko, hau da, gaztigu erantsia emateko eta mendekua praktikatzeko.

3-. Aipatutako gobernuei, sakabanaketak, bakartzeak, jipoitzeak eta urruntzeak ez dizkietelako ekarri beraiek espero zituzten emaitza politiko eragingarriak, baina, hala eta guztiz ere, eta 28 urte edo gehiago igaro badira ere, berdin-berdin mantentzen dituztelako neurri bidegabe horiek.

4-. ETA erakunde armatuak, duela bost urte baino gehiago, behin betiko utzi zuelako armen borroka eta bere armagabetzea saiatzen ari delako egiten, bi gobernu handi horien oztopo guztien gainetik.

5- Preso horiek eta gainerako pertsona guztiek, errudun izanda ere, beren giza eskubide unibertsalak dauzkatelako, estatu demokratiko orok bete beharreko koak.

6-. Frogatuta dagoelako neurri horiek ez dutela batere laguntzen presoak bergizarteratzen, eta, hori izan behar dutelako helburu nagusia espetxeek, alegia, bere atxiloak bergizarteratzea.

7-. Preso gaixo larriek eta adinean aurrera joandako gatibuek ezin dituztelako jaso behar bezalako tratamendu klinikoak eta zainketa arretak.

8-. Presoen, deportatuen, deserriratuen eta abarren senideak, ahaideak, lagunak eta auzokoak ez direlako errudunak. Horiek ez dute inolako deliturik egin, baina, hala ere, honako zigor erantsi doako hauek pairatzen dituzte sarritan: istripuak, heriotzak, zauriak, elbarritzeak, kontrolak, jazarpenak, estresak, gastu ekonomiko ikaragarri handiak, debekuak, denbora galtze handi-handiak, guraso eta aitona-amona zaharrak ezin joan izatea beren senitartekoak ikustera, bidaiak luzeegiak eta latzegiak direlako, haurrek beren gurasoekiko haurtzaroa galtzea, eta abar, eta abar.

9-. Espainia eta Frantziako gobernuek ez dutelako erakusten batere borondate onik, konponbidea eta bizikidetza egokia lortzeko gure gizartean.

10-. Afera hau sakonki aztertuz gero, beste hamaika arrazoi gehiago ere erraz aurki litezkeelako, egoera eta jokabide desegoki hauek salatzeko.

Nik ere gorputz eta arimaz salatzen dut!!!

# Transtxakain-Aranbururen eskerrona

Transtxakain (Lesaka)

Urtarrilaren 3ko gauean gure lantegian izandako sutea itzaltzen lagundu zuten guztiei gure eskerrona adierazi nahi diegu: Lesaka, Bera, Oronoz-Mugairi, Cordovilla eta Irungo suhiltzaileei, baita modu batean edo bertzean laguntzeko borondatea erakutsi zuten guztiei. Milesker!

# Joxe Manuel Porturi esker onez

Josu IRATZOKI (Berako EHBilduren izenean)

Berako Eh Bildutik eskerrak eman nahi dizkiogu azken 2 agintalditan udaletxean lanean aritu den Joxe Manuel Porttu Berasategiri. 6 urte hauetan fin eta konpromiso handiarekin aritu zara udaletxean lanean zure herriaren alde. Benetan estimatzen dugu urte hauetan izandako jarrera eta egindako lana. Berriz ere bidean topo eginen dugulakoan, eskerrik asko.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

## Prentsatik bildutakoak



«Nobela beltzak aukera ematen du kritika soziala egiteko, sarritan gizarteak bizkarra eman eta ezkutuan dagoen mundua azaleratzen duelako. Hasierako nobela beltzetan, poliziak eta detektibeak talka egiten zuten. Detektibeak jakin nahi duena egia dela, eta poliziak, berriz, bertsio ofiziala».
**Ernesto PRAT**
(H)ilbeltza
BERRIA 2017.01.14

«Lehen (H)Ilbeltza ia esperimentu moduan hasi genuen. Ez genekien zer izango zen: hitzaldi bat, asteburu bat… Ideia eztandaren ondotik, aste osoko eskaintza osatu genuen».
**Aitziber ZAPIAIN**
(H)ilbeltza
BERRIA 2017.01.14

«Anitzetan erraten dugu literaturak publiko murritza erakar dezakeela. Baina arras hurbileko giroa sortu zen lehen aldian, eta horrek aitzinera egiten lagundu digu».
**Elurre IRIARTE**
(H)ilbeltza
BERRIA 2017.01.14

## 11 galdera labur

**Saltsero fama omen duzu**
Gustatzen zait saltsa guztietan sartzea eta gauzak mugitzea. Nahiago nuke bertzeak ere saltseroagoak balira....

**Zein afizio dituzu?**
Orain arte kirolean ibili naiz futbolean, herri kiroletan... orain momentuan ez dut egiten izan nuen lesio batengatik.

**Inauterizalea zara?**
Bai, Igantzin izaten diren ospakizunetatik gehien gustatzen zaizkidanen artean daude.

**Nola bizi dituzu inauteriak?**
Lagun giroan ibilitzen gara etxez etxe, herritar guztiei bisitan.

**Zein da Igantziko inauterien berezitasuna?**
Neska-mutilak, nahi duen guztia ateratzen dela eskean. Adin desberdinetakoak ibiltzen gara kuadrila bakarrekoak bagina bezala..

**Janzkera berezia ere baduzue..**
Etxez etxe mairuz jantzita ibiltzen gara. Garai batean herrian ibiltzen zen mozorro bat ere berreskuratu da baina oraindik ez dugu jantzeko pausoa eman.

**Eta larunbat gauerako irudimena martxan jarri behar?**
Azkeneko urteetan beti hotza pasatu dut arropa gutxiegi eramateagatik. Hala ere mozorroa baino gehiago lotsak alde batera utzi eta ongi pasatzeko gogoa izatea da garrantzitsuena.

**Orain artekoetatik gustukoena?**
Behin moto zahar batekin atera ginen eta erokeriak egiten, nahikoa barre egin genuen.

**Igantziko inauteriek zer dute faltan?**
Zozketaren aitzakian, orain dela urte batzuk gazteek antzerki bat egiten zuten eta jendetza biltzen zen. Zozketa mantendu da baina antzerkia galdu. Horixe botatzen dut faltan...

**Igantziko inauterien ondotik zer?**
Lesaka edo Berako inauterietara beti joaten gara.

**Amets bat?**
Dudanarekin ongi segi eta datorrenarekin ongi moldatzea.



**Arkaitz RETEGI ZAMORANO ➜ Igantziko gaztea**


















# BERA

**GIZARTEA ➜** URTARRILAREN 14AN ETA 15EAN

## Mendi Eguna berezia izan da hamargarren urteurrenean

Santa Barbarako kronoigoeran 58 bikote atera ziren eta herri afariak 160 lagun bildu zituen



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi korrikalari Santa Barbarako Igoeran, tartean debuta egin eta herri afarian omenaldia jaso zuen Txumari Goia.

**TTIPI-TTAPA**

Arrakastatsua suertatu da aurten ere Berako Mendi Eguna. Urtemuga berezia zen aurtengoa, hamargarren edizioa, eta horren harira, ohikoez gain, ekitaldi bereziak ere antolatu dituzte Agerra Mendi Taldeak eta Manttale Mendi Lasterketa taldeak, 2007ko urtarrilaren 13an Taillonen hildako Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiren omenez.

Urtarrilaren 14an, goizean eskalada tailerra egin zen Toki Ona kiroldegian, eta 50 bat neska-mutikok parte hartu zuten, eskalada eta oreka ariketak eginez. Ezintasunen bat dutenentzako ere ariketa bereziak egin zituzten. Arratsaldean, Santa Barbarara oinezko mendi ibilaldia (50 lagun) eta binakako kronoigoera egin ziren (58 bikoteren partehartzearekin) eta Manttaleko haurrek lasterka ere egin zuten.

Beranduago, Kultur Etxean, Josu Iztueta eta Pablo Dendaluzeren eskutik *Biziminez* dokumentalaren proiekzioa egin zen eta hemen ere jende aunitz bildu zen, tartean Josune Bereziartu eta Rikar Otegi mendigoizaleak.

### HERRI AFARIA ETA MENDI IRTEERA

Larunbateko jarduerak Altzateko frontoian egindako herri afariarekin borobildu zituzten. 160 lagun bildu ziren eta sarreran buff bat jaso zuten opari eta Guztiok elkartearen aldeko saskiaren zozketan parte hartzeko borondatea ere bildu zuten. Afalondoan makil bana eman zieten Iztueta eta Dendaluzeri, baita Everest igo zuen lehen nafarrari, Pitxi Egillor-i. Loro eta Zubietaren kuadrillako Suso Campos eta Jorge Marañonek ere makil bana jaso zuten. Kronoigoeran debuta egin zuen Txumari Goiari ere oparia eman zioten.

Mendi Egunak igandean ere segida izan zuen aurtengoan, mendi ateraldia egin baitzen. Euriari aurre eginez, 20 bat lagun atera ziren, batzuk oinez, bertzeak lasterka, Ibardingo Txori Lepon gosaltzeko tartea hartuz.

**FLASH**

### Haurrentzako ipuin kontalaria

*Munduan asko bezala*
Munduko herri ipuinak kontatuko ditu Eneko Haritzak urtarrilaren 27an, ortziralean 18:00etan herri liburutegian, 4-8 urteko haurrei zuzendua.

### Baserriaren jatorriaz hitzaldia

*El origen del caserío vasco* hitzaldia eskainiko du Alberto Santanak urtarrilaren 28an, larunbatean 12:00etan Beralandetan.

### 'Gutik ZUra' dokumentala

*Gutik ZUra* dokumentala ikusgai izanen da otsailaren 4an, 19:00etan Kultur Etxean. Mari Jose Barriola zuzendaria ere bertan izanen da.







**GIZARTEA ➜** URTARRILAREN 28 ETA 29AN

# Kultur Asteburu Feminista antolatu du Goldatz taldeak

## Hainbat ekitaldi prest dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Azken aldian bezala, urtarrilean ere ekitaldiak prestatzen ari da Goldatz Berako Emakume Talde Feminista. Urtarrileko azken asteburuko hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Urtarrilaren 28an, larunbatean 17:00etan Beralandetan *King Kong Teoria* (Virginie Despentes, 2007) liburuari buruzko solasaldia eta hausnarketa eginen dute Beralandetan.

Larunbatean, 19:30-ean, leku berean *Karta Astrala* (Maite Bidarte eta Koldo Garcia) dokumental laburraren emanaldia, Maite Bidarte lesakarrarekin. Okurrentzia batetik abiatuta grabatu zuten Karta astrala: nire egun eta toki berean jaiotako pertsonak, nire bizitza eskarmentu beretsua izan ote du?

Urtarrilaren 29an, igandean 19.00etan Ikuilu ostatuan *Autobiographikal* poesia antzeztua emanaldia izanen da.

Ane Zubeldia eta Eider Adeltxek sortutako poesia-antzerkitua, antzerki-poesiatua da *Autobiographikal*. Topatutako hainbat poema oihukatu, xuxurlatu edo esajeratuki errezitatzeko beharretik edo nahitik sortu zen behin batean Gasteizen, eta Euskal Herriko hainbat txokotara zabaltzen ari dira orain June Jordan, Ingeborg Bachmmann, Eunice de Sousa, Sapho eta bertze hainbaten hitzak.

### ? Ba al zenekien

**Larun Haizpe elkarteak 200 euroko hiru erosketa bonoren zozketa egin duela. Hauek izan dira saridunak: Asun Matxiarenari egokitu zitzaion bonoa, Ana Maria Pizziok emandako boletoarekin; Maria Luisa Martinez-i, Amaleunek emandako boletoarekin eta Lourdes Galarregiri, Arturok emandako boletoarekin.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### Txamukos mariatxien kontzertua Guztiok elkartean alde

Bortzirietako Guztiok elkartearen aldeko kontzertu solidarioa eman zuen urtarrilaren 8an Txamukos mariatxi taldeak Altzateko frontoian. Eguraldi hotzari aurre egiteko emanaldi beroa eskaini zuen mariatxi taldeak eta behar bereziak dituzten umeen familiak elkartzen dituen Guztiok elkarteko guraso eta haurrak ere igo ziren oholtzara, eskerrak ematera, kantatzera eta dantzatzera. *Gure beharra, zure beharra* goiburupean egin zen kontzertura sartzeko borondatea utzi zuten hainbat eta hainbat bortziritarrek. Musika ez ezik, Guztiok elkarteak eta Txamukos taldeak elkarlanean egindako bideoa ere proiektatu zuten frontoian. Ikus-entzunekoan, Guztiok elkartearen esperientzia eta proiektuak azaltzen dira, elkartasuna eta laguntza eskatzearekin batera.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Urtezahar egunean kopla kantari Suspela eta Dornakun

Herrian bertzelako aukera izan arren, baserrietara joatea erabakitzen dute zenbaitzuk urte zaharra kantuan eta umorez agurtzeko. Trikiti eta panderoen laguntzarekin, kopla kantari ekin zion arratsaldean 30 bat laguneko koadrilak, Suspela eta Dornakuko auzotarrak agurtzeari. Guztira, dozena bat baserrietan izan zuten zer abestua. Gauerdia gainean eta tenperatura zeropetik zela, kantu zaharren epelean egin zuten itzulia. Duela pare bat hamarkadatik goiti beraien etxeko ateak irekitzen dituztela eskertu asmoz, lore sortak banatu zituzten harrera egindako etxe bakoitzean: *Mila esker koplari ibili ginen guztion izenean!*

xuga
tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Eñaut & Nekane
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 • BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

# LESAKA

GIZARTEA ➜ ABENDUAREN 23KO BATZARRA

## 2.594.740 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Geroa Bai alde eta EHBildu kontra agertu ziren

**Aitor AROTZENA**

2.594.740 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten udalak, abenduaren 23ko batzarrean Geroa Bairen aldeko botoekin eta EHBilduren kontrakoekin onartutako udal aurrekontuaren arabera. Kopuru hori joan den urtekoaren berdintsua da (10.000 euro gehiago). Orain udal idazkaritzan eta Herriko Etxeko iragarki-taulan ikusgai dago aurrekontua, herritarrek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Inbertsioen atala 285.100 eurokoa izanen da, gehiena lan ttikiak egiteko. Handiena, Lesaka-Bera ur hornidura lanetarako izanen da, 125.000 euro (Irain eskolako hobetze lanak ere atal horretan sartuak daude, zuhaitz landetze eta baso-lanetarako 123.450 euro erabiliko dira, eta eraikin eta bide publikoetan obrak egiteko.

Ohikoa denez, langilegoan joaten da gasturik handiena (771.350 euro) eta bankuen amortizazio, interes eta bertze gastuetan ere 279.044 euro joanen dira. Aipagarria da besta, inauteri, eguberri eta bertze besten antolaketarako ere 103.000 euro erabiliko direla.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Emakumezkoen Eguberrietako II. Frontenis txapelketa

Bigarren urtez, emakumezkoen frontenis txapelketa antolatu dute. Zazpi bikote aritu ziren urtarrilaren 7an. Final estuan, Lesakako Miren Eguesek eta Goizuetako Jaione Jimenezek 16-15 irabazi zieten Etxalarko Ainhoa Berrueta eta Berako Irantzu Etxebesteri. Partehartzaile guziak (batzuk Malerrekatik eta Leitzatik etorriak) pozik eta gustura gelditu ziren, bere botila txanpainarekin. Azpitxapeldunek bonboiak eta txanpaina izan zuten saritzat eta txapeldunek erroskoa eta txanpaina.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### III. Ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

Beti Gazte Elkarteak hirugarren urtez antolatutako ipuin lehiaketako sariak banatu zituen urtarrilaren 13an.LHko 3. eta 4. mailako ikasleak biltzen zituen A mailan, lehenbiziko saria Lorea Bertiz Aranburuk eskuratu zuen *Espaziora banoa globoarekin* idazlanarekin, bigarrena Leire Legasa Goiak *Hiru neskak eta animaliak* ipuinarekin eta hirugarrena Fermin Bertiz Arrietak, *Sorgina* ipuinarekin. B mailan, (5. eta 6. mailak) lehen saria Naroa Garaiar Almandozek eskuratu zuen, *Nire biziko etapa on bat* ipuinarekin; bigarren saria Ibon Urrosolo Elgorriagak eskuratu zuen *Ibon eta Iosu bixki siamesak* idazlanarekin eta hirugarrena Garazi Ubiria Garmendiak, *Mendian* idazlanarekin.

## FLASH

### Nafarroa Oinezeko jarduerak Oiartzunen

Nafarroa Oinezeko ekitaldien baitan, otsailaren 11n Oiartzunen bi ekitaldi eginen dituzte. Arratsaldeko 4:30ean Ardituurin tobera tailerra izanen da Soinuenearen eskutik eta 7etan Arritxulon *Trabajadoriak* bertso-trama. Alaia Martin, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Eneko Fernandez ariko dira kantari. Sarrerak 5 eurotan salgai daude Izarra okindegian edo *jarduerak@oinez2017.ikastola.eus* helbide elektronikoan. Saioaren ondotik Arritxulon bertan afaltzeko aukera ere izanen da 12 eurotan. Lesakatik Arritxuloko bertsotramara joateko eta afaldu ondoren itzultzeko autobusa ere izanen da eta horretarako izena eman behar da lehenbailehen.

### Bertso txapelketarako simulakroa

Abiatzekotan da Nafarroako Bertsolari txapelketa eta horren simulakroa antolatu du urtarrilaren 28an Bortzirietako Bertso Eskolak Arrano elkartean, bertsolariak trebatzen joan daitezen. Hain zuzen, txapelketan parte hartuko duten Bortzirietako 6 bertsolari ariko dira, larunbat arratsaldeko 5:30etik aitzinera: Josu Sanjurjo, Julen Zelaieta, Ioar Tainta, Patxi Castillo, Iban Garro eta Eneko Fernandez.





**KULTURA** ➜ 2017. URTEARI DAGOKIONA

# Hilarriei buruzko liburua atera du Pello Apezetxeak

## Norberak bere kabuz internet bidez egiteko aukera ere bada

**Irune ELIZAGOIEN**

*Joandakoen oroigarriak; Etxalarko hilarriak* izenburupean, hildakoak gogoratzeko Euskal Herrian eta Etxalarren bereziki erabili diren trikuharri, harrespil eta, Etxalarko eliza inguruan hain dotore ageri diren hilarrien inguruko liburua idatzi eta argitara eman du. Pello Apezetxeak aipatu digunez, «joan direnez oroitzea aspaldiko eta hagitz zabaldutako ohitura da mundu osoan, eta oroitze horren zenbait seinale mantentzea ere bai. Horrela, gure aitzinekoak gogoratzean, gure historia dakarkigu gogora, haiek izan eta egindakoa baita gure izaeraren zatia. Hilarriek ere ikusarazten ahal digute horren zerbait, eta badute horregatik garrantzia». Eta horiek ongi zaintzen saiatzeak ere



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA
Pello Apezetxea apeza, bere azken liburuarekin.

merezi duela uste du Apezetxeak. Zaintze horretan lehen urratsa ezagutzea da eta horretarako dator liburu hau. Izan ere, gaur egungo Euskal Herriko 5.000 hilarrietatik %65 Iparraldeko herrietan dira, hiru mila baino gehiago, 1.200 Nafarroan eta 500 Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, hiru herrialdeen artean, museoetan batez ere hondarreko hauek. Etxalarren, aldiz, eliz atari dotorean eta hilerrian ikus daitezke 100 hilarri inguru. Vidal Perez de Villarreal ikerlearen arabera, Nafarroan Etxalarrek du hilarri kopuru handiena.



ARGAZKIA: JONE BIZENTE

### Bingo arrakastatsua Herriko Ostatuan

Urteberri egunean, herriari bixitatsuna eman asmotan antolatu zen Bingoa Herriko Ostatuan eta hagitz arrakastatsua izan zen.



ARGAZKIA: MIREIA MARTINEZ

### Mireia Martinez, Baserri eta Txankarra

ETB1eko Baserri, Txankarra eta Maitaneren programan agertu zen Mireia urtarrilaren 2an. Asmo berrien inguruko programa grabatu zuten Getxon eta Mireiak taroteko kartak bota zizkien protagonistei beraien etorkizuna asmatuz.





ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN ETA IBON ERRAZU

### Carlos Nuñezekin bira bukatu du Itsasok

15 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte Carlos Nuñez eta bere taldeak (tartean Itsaso Elizagoien herriko trikitilariak). Gabonetako biran eta Bartzelona, Madril eta Bilboko areto handiak jendez bete ditutze. Bertzetik, salgai dago Euskal Herriko Trikitixa elkarteak atera duen *Geure Kolkotik* diskoa. Itsasok berak sortutako 3 kanta ageri dira eta Herriko Ostatuan ere eros daiteke.



# ARANTZA

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 9TIK 11RA

## 30 bat Mozorro Zuri ibiliko dira etxez-etxe inauterietan

### Mitxelena anaiak ariko dira akordeoiarekin

**Nerea ALTZURI**

Hurbiltzen ari dira inauteriak. Otsailaren 9, 10 eta 11n mozorro gazte eta gaztetxoen puxka biltzeak, otorduak, bertso afaria, Emakumeen afaria, herri-kirolak, zozketa, musika, mozorroak... Denetarik izanen da. Xehetasun gehiago 16. eta 17. orrialdeetan dituzue.

Aipatu, aurten 30 bat gazte bildu direla Mozorro Zuri ibiltzeko. Beñat eta Andoni Mitxelena ibiliko dira bazterrak akordeoi doinuekin alaitzen.



UTZITAKO ARGAZKIA

**50. urtemugako ospakizun haundia**

Abenduaren 30ean Burlada jatetxearen 50. urtemugako ospakizunaren harira, sorpresa aunitz gaineratu zituzten egitarauan eta Goiko Karrikan honako irudi hau ikus zitekeen. Aurreskua, Iturengo joaldunak, hamar aizkolariren saioa, pintxoak, saltsa saioa, Beñat eta Fernandoren kantaldia, Bull DJa... Esther Burladak parte-hartzaileak eta bildutakoak bihotzez eskertu nahi izan ditu.

**EMAN BORTZEKOA ELKARTEA**

## Erabakitzeko eskubidearen alde sinadurak bilduko dituzte inauterietan

Ilbeltzaren 15ean aurkeztu zuten Lesakan Eman Bortzekoa elkartea. Gure Esku Dagok hasitako bidea gauzatzeko sortua da, udaberrian bortz herrietan herri-galdeketa egin nahi dutelako. Bada bortz herrietako hainbat herritarren atxikimendua jaso du elkarteak, tartean, aranztarrena: Beñat Mitxelena eta Iban Zugarramurdi (musikariak), Juanita Larralde (irakasle jubilatua), Margari Madariaga (baserritarra), Ana Larretxea (kirolaria), Mentxu Peña (euskaltegiko irakasle ohia eta zinegotzia) eta Antton Maiz (pilotari ohia).

Erabakitzeko eskubidearen aldeko galdeketa egiteko sinadura bilketa abian paratu dute eta bi hilabetez, herrian sinadurak bilduko dituzte. 16 urtetik goiti eta Arantzan erroldatuak izan behar dute. Inauterietako larunbatean, otsailaren 11n, adibidez, sinadurak bilduko dituzte, baina bertze egunak ere jakinaraziko dituzte. Eltxetxuak ere paratuko dituzte ostatuetan borondatea biltzeko.

Bertzalde, martxoaren 11n, ekimen honen baitan, bertso afaria izanen da.










**FLASH**

### Auzolanaren ordenantza

Ilbeltzaren 12ko batzarrean, auzolanaren ordenantza behin-betikoz onartu zuen Udalak. Horren arabera, 18 eta 55 urte bitarteko herritarrek auzolana egin behar dute, ezinduek eta presoek izan ezik. Bakoitzak urtean 10 ordu egin behar ditu auzolanean, hau da, bi egun, eta norberaren ordez bertze norbaitek ere egiten ahal ko du. Bertzela, eguneko 50 euro ordainduta auzolana egitetik libre gelditzen ahal da. Baten batek bere traktorea edo kamioia erabiltzen badu, ordu bakoitza bikoitza kontatuko da, eta auzolanerako erabiltzen den desbrozadora edo motozerraren erregaia Udalak ordainduko du.

### Trikitixa jaialdia

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten ere trikitixa jaialdia antolatu dute Arantzan. Martxoaren 11n izanen da eta Udaleko Kirol eta Kultura Batzordea hasia da prestatzen.

### Zaborrontziak erreta

Berriki bi zaborrontzi erre dira. Ustez, suaren hautsa barrenera botatzeagatik izan da. Hortaz, zaborrak ongi kudeatzeko eskatu du Udalak.

### Elkartasun zozketa

Urtero bezala, abenduaren 31n elkartasun zozketa egin zen, herriko trikitilariek girotutako kalejiraren ondotik. Bertako produktuez osatutako lotea Juanjok eraman zuen; bildotsa Elik eta oilarra Ana Marik.

OSPAKIZUNAK ➜ URTARRILAREN 17AN

# Bai euskarari zozketako zenbaki saridunak aipatu dituzte

Arantzako Blanka ileapaindegian eta Lesakako Arrano elkartean banatuak dira

**TTIPI-TTAPA**

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, urtero bezala, Bai Euskarari zozketa egin du urtarrilaren 9an Arantzako Herriko Etxean eta udal idazkariaren aitzinean eta saria jaso duten zenbakiak honako hauek izan dira: 208 eta 4.888.

Lehenbiziko zenbakia, 208a, Arantzako Blanka ile-apaindegiak banatu du eta Etxalarko Herriko Ostatuan jatetxean bi lagunendako otordua izanen du saritzat.

Bigarren zenbakia, 4.888a, Lesakako Arrano elkarteak banatu du eta Lesakako Ibai-Ondo janari dendak Nafarroako produktuekin osatutako saski bai izanen du saritzat.

Otsailaren 16ra arteko epea dute irabazleek saria jasotzeko, Bortzirietako Euskara Mankomunitatera deituta (948 634 125 telefonoa). Ordurako ez bada inor agertu sariak eman gabe gelditulo dira.

Guztira 6.000 boleto banatu ditu aurten Euskara Mankomunitateak, Bortzirietan ziurtagiridun diren 65 saltoki, erakunde eta elkarteetan, gero hortik, bezero diren herritarrei esker ona adierazizemateko.




UTZITAKO ARGAZKIA

## Bullying-aren kontrako KiVa metodoa aurkeztu dute Beran

Bullying edo eskola-jazarpenaren aurka egiteko ikastetxean ezarri duten KiVa programaren aurkezpena egin zuen Berako Labiaga ikastolak urtarrilaren 17an Kultur Etxean eta 60 bat familia bildu ziren. Goizean metodoa erakutsi zitzaien ikasleei eta pankartak egin zituzten, muralak, hitzaldiak... KiVa bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa da. KiVa programa Finlandiako Hezkuntza Ministerioak finantzatu eta Turkuko Unibertsitateak sortu eta garatutako eredu bat da, eskola-jazarpena murriztea xede duena. Frogatuta dago: KiVa-k eskolan jazarpena murrizten du eta ongizatea hobetzen du. Finlandian, Lehen Hezkuntzako ia eskola guztiak KiVa programa ezartzen ari dira. Euskal Herriko ikastoletan ere programa bera ezarri dute. KiVa-ren ezarpena era aunitzetan nabari da ikastetxean. Ikasleek KiVa ikasgaiak izango dituzte (10 ikasgai dira, eta bakoitzak 45 minutuko bi saio ditu).

bai euskarari
bai euskarari zozketa BIZI EUSKARA!
SARIDUNAK
2017ko urtarrilaren 9an, 09:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta idazkariaren aitzinean, saritu beharreko 2 zenbakiak zozketatu dira
Saridunek mankomunitatera deitu behar dute (948 634 125 tel.) **2017ko otsailaren 16a baino lehen.**
Ordurako ez badira zenbaki saridunak agertzen, sariak eman gabe gelditukon dira.

**1.- Herriko Ostatuak (Etxalar) BI LAGUNENTZAKO OTORDUA**
**208** zenbakia, Blanka ile-apaindegiak (Arantza) banatua

**2.- Ibai-Ondo janari denda (Lesaka) SASKI BAT NAFARROAKO PRODUKTUEKIN**
**4888** zenbakia, Arrano elkarteak (Lesaka) banatua

Sustatzaileak:
ziurtagiriarenelkartea
bai euskarari
baieuskarari.org
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Babesleak:
ETXALARKO HERRIKO OSTATVA JATETXEA
Ibaiondo janaridenda
ttipi-ttapa

# Arantzako inauteriak















## EGITARAUA

### Otsailak 9, ortzeguna

**09:00etan** Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik eskolako neska-mutikoei bisita** eginen diete bizkarrekoak paratzeko. **Segidan** bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joanen dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin. **Egun osoan baserriz-baserri eskean. Arratsaldean ikasle eta irakasleak** Mozorro Zuriz jantzita, herrian **kopla kantari**. **Gauean** Mozorro Zurien **afaria** Primi ostatuan.

### Otsailak 10, ortziralea

**Goizean** Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik herrian barna eskean** etxez-etxe musikariekin. **Eguerdian** Mozorro Zurien **bazkaria** Pabloenean. **Ilunabarrean** Mozorro Zurien **ginkana**. **Egun osoan eskolako neska-mutikoak baserriz-baserri puxka-puxka**. **Gauean bertso afaria** Aterpean **Jon Maia eta Jexux Mari Irazu**rekin. **Gauean Emakumeen afaria**. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** Gorapean Beñat eta Fernandorekin.

### Otsailak 11, larunbata

**Eguerdian** Mozorro Zurien **bazkaria** Burladan. **Arratsaldean ttiki eta gaztetxo mozorrotuen kalejira**. **Ilunabarrean 2017ko Binakako Urrezko aizkora txapelketako finalerdia** frontoian. **Gauean** Mozorro Zurien **afaria** Ekaitza Elkartean. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** Gorapean Oharkabe taldearekin.








**Idoia ETXEBERRIA MAKIRRIAIN** | Arantzako inauterizalea

# «Inauteriek bertze xarma bat dute, herrikoiagoak dira»

## Familian eta lagunekin ospatzen ditu inauteriak, ttikitatik gustuko dituen ospakizunak



Ttiki-ttikitatik maite ditu Idoiak herriko inauteriak. Etxetik datorkio zaletasuna. Halaxe onartu digu, euren etxean belaunaldiz-belaunaldi pasatu den zerbait izan dela, «atautxik amari, eta amak niri». Izan ere, «gure atautxi zena, amaren atta, Mozorro Zuri ateratzen zen. Argazkiak ere baditugu lehenagoko Mozorroen arropekin jauntzita. Baserrietan ibiltzen ziren, eta amak nola ibiltzen ziren kontatzen zigun. Amak ere gustukoak ditu inauteriak».

Ez ditu atzenduak haurra zela Mozorro Zuriak bere etxera hamaiketakoa egitera joaten zireneko momentuak. Mozorro Zuriek bihurri fama badute, eta Idoiak ere gogoan ditu neskatoa zela etxean ikusitakoak: «noizbait, gu enteratu gabe, *zinta islantea*rekin bildu ziguten etxeko telefonoa. Gero, telefonoa jo eta jo hasi zen, eta guk ezin hartu». Attak garajean edukitzen zuen *vespa* motorra hartu eta bueltaka ibiltzen zirela ere aipatu digu. «Eta gu kontent», dio irriz.

**«Gaur egun, ez da halakorik egiten baina lehen, ortziraletan, denak buzoarekin ateratzen ginen».**

Gaztaroan, «besta ederrak» eginez pasatu zituen inauteriak. Emakumeen Afarira «tarteka» joaten zela adierazi digu. Eta oraingo gaztetxoek halakorik ezagutu ez badute ere, lehen inauterietako ortziraletan buzoaren eguna izaten zela oroitarazi digu: «denak Laminazioneseko buzoekin ateratzen ginen». Larunbata «egun haundiena» izaten omen zen: «denak mozorrotzen ginen», eta igandean bazkaria. Gaztetxoa zela, neska batzuek Mozorro Zuri ateratzeko saiakera ere egin omen zuten, baina bere horretan gelditu zen. Aurten, ordea, lehenbiziko aldiz emakumezkoak ere aterako dira Mozorro, eta berria pozik hartu du: «gauza eta tradizio guztiak eboluzionatzen doaz».

Guraso denetik, berriz, egunez familiarekin eta gauez lagunekin mozorrotuz ospatzen ditu inauteriak. Gustuko baitu mozorrotzea: «gure identitatea gordetzen dugu, ez gaituzte ezagutzen, eta bertze itxura bat hartzen dugu. Gainera, negua da, eta neguan ez gara hainbertze ateratzen...». Are gehiago, herriko bestak baino nahiago ditu: «gehiago gozatu izan dut inauterietan. Bertze xarma bat dute eta herrikoiagoak dira». Zerbait aldatzekotan, haurrak mozorrotzen diren larunbat arratsaldeko tartea eginen omen luke, «indartu egin beharko litzatekeela» uste baitu.

**GORRIZ MARKATUTAKO EGUNA**

Hutsik egin gabe mozorrotzen da inauterietan. Eta mozorroren bat aukeratzeko eskatuta, garbi du zein: «joaldunez jauntzi ginenean pasatu genuen hobekien. Ardilarruarekin, joareekin... Herri guztian barna pulunpa soinuan ibili ginen». Irriz gaineratu digu: «ostatuetan sartzen ginenean, jendea ingurutik joaten zen, ardi-larru usainagatik. Baina guk primeran pasatu genuen». Aurtengo mozorroa prestatzen ere hasiak omen dira, nahiz eta ez digun aitortu zein izanen den. Jakin-nahi horrekin utzi gaitu, baina aurpegi estaliarekin ala ez, badakigu ez dela etxean gelditxuko, berak eta bere lagun kuadrillak «larunbata guretzat erreserbatua dugulako».

ongi pasa inauteriak!!
Gasa Ura Kalefakzioa
fröling
Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara
PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
686 23 52 30
patximutu@hotmail.com
ERAKUSKETA: Bidasoa, 45 - BERA

I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052 ARANTZA
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

Bidasoa GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

Luis Ibarra
Zurgin lanak orokorrean
636 701 204
luisibarra86@hotmail.es t2. 690 388 263
Salbatore karrika,28 – 31790 ARANTZA (Na)
ARMAIRUAK | LEIHOAK | ATEAK
TEILATU BERRIAK | PARKE FLOTANTEA
TARIMA | TEILATU ZAHARBERRITZEAK





## EGITARAUA

### Otsailak 17, ortziralea

**10:00 aldera** Berrizaun auzotik hasita, **etxez-etxe eta baserriz-baserri eskean** ibiliko dira gazteak. Herrira bueltan, bidegurutze aldeko etxeetara bisita eginen dute eta gero, Frain auzora joanen dira. **Bazkalondoan herrian eta Sarrola eta Lasaga auzoetan eskean** ibiliko dira gazteak. **Gauean afaria** eginen dute.





### Otsailak 18, larunbata

**08:00etan** Mozorroak elkartu eta **Irisarri** auzora joanen dira gazteak. **11:00 aldera** herrira bueltatu eta **Unanu auzora** eta **Piedade gainera** joanen dira. **Arratsaldean haurrak kalejiran** ibiliko dira. **Ilunabarrean** etxez etxe eskean ibilita banatuko dituzten **boletoen zozketa** eginen dute gazteek, lehenengo saria bildotsa eta bigarrena ardo lotea. **Gauean afaria** eginen dute.

IHAUTIK!!!
Gorazirudi
INPRENTA - KOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
kamisetak / oparitzeko artikuluak

IGANTZIKO UDALAK
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei

ONGI PASA INAUTERIAK!
Ingurumen Zerbitzuak
ezpala
• PINADIEN BALORAZIOAK
• LUR NEURKETAK
• MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
• INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN
ANDRES ZELAIETA ELTZAURDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

OKILA
zurgindegia
• tarimak, leihoak, ateak,eskailerak...
• obretako lanak orokorrean
Lander Sein
Mikel Arburua
Ongi pasa inauteriak!
607 88 39 68 · mikel@okila.eu
Piedadeko auzoa,32 · IGANTZI

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.
Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

Ongi pasa inauteriak!
LA VILLA
Ostatua - Jatetxea - Igantzi
ERRESERBAK • T. 948 637 290
ASTELEHENETAN ITXIA
Karrika Nagusia, 14 31790 IGANTZI

**GIZARTEA ➜** URTARRILAREN 15EAN AURKEZPENA

# Udaberrian herri galdeketa eginen dela iragarri du Eman Bortzekoa elkarteak



ARGAZKIA: A. AROTZENA
Eman Bortzekoa elkarteari sustengua eman zioten bortziritarrak.

Gure Esku Dago dinamikaren baitan sortu den elkarteari babesa eman diote hainbat herritarrek

**TTIPI-TTAPA**

Gure Esku Dago dinamikaren baitan Bortzirietan sortu den Eman Bortzekoa elkartea aurkeztu zuten urtarrilaren 15ean Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Bortz herrietako hainbat aurpegi ezagunek parte hartu zuten aurkezpenean, baita ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariek ere.

Joseba Olagarai eta Estitxu Fernandez kazetariek aurkeztu zuten ekitaldian aipatu zutenez, «Oninen ingurua, Oningo zubiak, elkargune dira gaur. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakarren elkargune. Herri, jatorri, lanbide, ideologia… ezberdinetako herritarrak bildu gara hemen, sektore desberdinen zubi lana eginez, egiteko. Izan ere, Onineko zubiak ezpatadantzan egiten duen moduan, zubiak harremanak moldatzeko, sakontzeko balio dute, suntsitutakoa eraikitzeko. Zubiek, oraina eta etorkizuna lotzeko balio dute, gaurtik biharko eguna eraikitzeko».

**HERRI GALDEKETA UDABERRIAN**

Eman Bortzekoa elkartea Gure Esku Dagok hasitako bidea gauzatzera datorrela ere aipatu zuten, «herri galdeketa egitera gatoz, herritarrek etorkizunean herri gisa zer izan nahi duten galdetzera gatoz. Udaberrian egin nahiko genuke galdeketa hori, Mendialdea eta Sakanarekin batera. Herriari galdetu egin nahi diogu, herritarrok erabaki dezagun, zer izan nahi dugun, nora joan nahi dugun, herri gisa zer izan nahi dugun. Izan ere, horma eta harresiak ez ditugu maite, gure buruaren jabe izan nahi dugu, etorkizuna gure eskuetan hartu eta eraiki nahi dugu, gaurko ametsak biharko egi bihurtzeko».

Herri galdeketaren bidea hasi baino ez dutela egin ere onartu zuten, «denen ekarpenak eta parte-hartzea da aberasgarria, zuena ere noski. Azkenean auzolan erraldoi bat izatea nahi dugu, bakoitzak ahal duen horretan ekarpena eginez».

Hasteko, sinadura bilketa erraldoi bat jarriko dute martxan, galdeketa deitu ahal izateko beharrezkoa baita. «Beraz, hemendik dei egiten dizuegu, Bortziritar guztiak sinatzera animatuz. Aterako den emaitzaz haratago, galdeketa egitea da helburua, parte-hartze haundia litzateke arrakasta».



# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK ➜ ILBELTZEKO ASKEN ASTEBURUAN

## Inauteriak ate joka dituzte eskolan ere

Mozorroak egin eta entsaioen ondotik, ortzirale arratsaldean ibiliko dira herrian barna

**Maider PETRIRENA**

Inauteriak ate joka ditugun honetan ere aipatuko dugu eskolako irakasle eta ikasleak mozorroa egiten ari direla baita beharrezko ensaioak ere. Honekin aipatu urtarrilaren 27an, ortzirale arratsaldeko 3etan elkartuko direla goitiko eskolako haurrak beheitiko eskolara jautsi eta denak batera herriari buelta emanen diote. Ondotik frontoian emanen diote bukaera ekitaldiari.

Segidan, urtero bezala, txokolatada eta musika izanen dute. Animatu denak eskolako irakasle eta ikasleak sortuko dute giroa ikustera.

Egitarau orokorrari dagokionez, urteko lehen aldizkarian agertu zen, baina laburbilduz, ortzirale honetan, gazteek beraien harat-honatak eginen dituzte bi taldetan banatuak eta emakumeen afaria izanen da Ulibeltzak elkartean; larunbatean ere eskean ibiliko dira gazteak, umeentzako berendua eta besta izanen da Ulibeltzak elkartean eta gauean gazteen afaria; igandean, berriz, karrozen desfilea izanen da eta ondotik bazkaria eta dantzaldia. Ongi pasa!

### Zumba ikastaroa

Eguberri ondotik ere aipatu beharra dago Zunba ikasten hasi direla ortzegunetan heldu zein haurrak Ione Bengotxea irakaslearekin.





Pertsonaia
Garazi ETXALAR

### Nafarroako eskubaloi selekzioarekin

Urte berriko lehen astean zehar Blanesen jokatu zuten Espainiako eskubaloi Txapelketa eta bertan Nafarroako selekzioarekin Garazi Etxalar Zugarramurdi sunbildarrak jokatu zuen, infantil mailan. Astea ongi pasatu zuten eta esperientzia polita eta abegarria izan da Garazirentzat bertan parte hartu ahal izatea.



ARGAZKIAK: ESTHER EZKURRA ETA MAIDER PETRIRENA

### Ohiturari eutsiz Urtaskak biltzen urte berrian

Urtero urtero, ohitura zaharrak segituz, Sunbillako haur eta gaztetxoak urtarrilaren 1ean Urtaskak biltzera ateratzen dira kantuan baserriz baserri eta etxez etxe. Intxaurrak, urrak, goxokiak, patatak, eta etxe bakoitzean borondatez ematen dizkietenak gustora biltzen dituzte eta nola disfrutatu ere etxez etxe kantuan. Goitian baserrietan ibili zirenak ageri dira eta beheitian herrian ibili zirenak.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Neguko eguraldia: hotza eta euria

Eguberrietan horma kontuak eduki genituen eta urtarrilaren 16an berriz ugaldeari begira ibili ginen, aterako zenaren beldurrarekin.

**GIZARTEA ➜** ABENDUAREN 11N ETA 13AN

# Hirigune historikorako plangintza burutzen ari da Udala

Trafikoaren arautzea, balizko peatonalizazioa, guneen antolaketa, edo etxeen zaharberritzea ahalbidetuko du

**Marga ERDOZAIN**

Doneztebeko Hirigune Historikoak Interes kulturaleko Ondasun kalifikazioa badu ere, bertan burutuko diren jarduerak arautzeko ezinbertzeko plana da PEAU delakoa. Eremuaren kalifikazio eta berrantolatze arkitektoniko zein urbanoa lagunduko duten neurriak jasoko ditu, legeak ezartzen duen betebeharra jarraituz. 2015ean Doneztebek bere plan urbanistiko berria estreinatu zuen. Legealdi honetan udal talde berriak Hirigune historikorako plana burutzea lehentasuntzat jo zuen. Planaren nondik norakoa burutzeko esleipen publikoa burutu dela, baita Nafarroako Gobernutik diru-laguntza jaso dela aipatu behar da.

Plan berezia idatzi aurretik, udalak bai biztanle, zein erabiltzaileek iradokizunak, arazoak, ekarpenak jasotzeko asmoz, Udalak parte-hartzeko prozesua ireki du. Nagusiki prozesu horretan doneztebarrek inkesta bat betetzeko eskatu zaie. Bi era daude inkesta hau helarazteko: udalaren web orrian sartuta (*www.doneztebe.eus*) edo/eta udalaren bulegoetan jasota eta bertan utzita. Inkesta honetaz gain, udalak bertako arkitektoak lagunduta bilera informatiboa burutu du ekarpen, zalantza eta galderak jasotzeko.

Prozesu hau burututa, planaren nondik norakoa idatziko da, herriak gaur egun dituen hainbat arazori irtenbide emanda. Hori dela eta Udalak herritarrak, plana burutzen den bitartean, iradokizunak eta ekarpenak egitera animatu nahi ditu.



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

### Urteko lehen Malerreka Kantuz Donezteben

Malerreka Kantuz ekimena Donezteben burutu zen urtarrilaren 7an. Goiza hotza bazen ere, eguzkia eta euskal kantek herrigune historikoa epeldu zuten. Laugarren aldia da Malerreka Kantuz Donezteben burutu dena. Ekimena hilabeteko lehendabiziko larunbatean burutzen da eta 2017rako honako egutegi hau izanen du: otsailean Urrozen, martxoan Zubietan, apirilean Oizen, maiatzean Ezkurran, ekainean Elgorriagan, urrian Eratsunen, azaroan Bertizaranan eta abenduan Beintza-Labaienen.

**AHOBATEZ ONARTU ZEN URTARRILAREN 12KO BATZARREAN**

## 1,6 milioi euroko aurrekontua izanen du Udalak

1.600.000 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2017rako. Urtarrilaren 12ko bilkuran ahobatez onartu zen EH Bildu taldeak landutako aurrekontua (PSNko Joseba Muro ez zen udal bilkuran izan) eta aurkezpen publikoa urtarrilaren 20an egin zen.

Udalak 2017an tasak eta zergak ez ditu goratuko. Aldaketarik nagusienak uraren tasetan eman dira, benetako kontsumora egokitzeko. Ibilgailuen zergaren igoera ere emanen da, baina zerga honen eskumena ez dagokio Idalari. 2017rako Udalak ezarri dituen lehentasunen artean honako hauek azpimarratzen ahal dira: osasun zentro berriaren urbanizazioa, adinekoentzat parke berria, herriko argietan hobekuntzak, espaloietan moldaketak, Bearzana plazaren sare berria eta txukuntze lanak, eskoletan hainbat mantentze lan, haur parkeetan hobekuntzak... Turismoa, berdintasuna eta kultur agendarako ere diru partidak handitu dira, 2016ko ildoekin lanean jarraitzeko.

## FLASH

### Web orri berria

Urte berriarekin batera Udalak web orri berria estreinatu du. Herriko zerbitzuak, Udaletxeko jarduera ikusteko eta segitzeko tresna izatea nahi da. Leiho honetatik ere eskaerak burutzeko aukera izanen da. Web orri honekin herritarrek aukera izanen dute alkateari kexak, galderak, iradokizunak ailegarazteko eta alkatearen erantzuna jasotzeko. Bisitarientzat ere web orria erakusleihoa izanen da, etortzen direnean gure bailaran dauden eskaintzak era errez batez ikusteko modua izanen baitute.

### Gutik ZUra

Gutik ZUra dokumentala ikusgai izanen da otsailaren 5ean, igande arratsaldeko 6etan zineman. Mari Jose Barriola leitzarrak sortu eta zuzendutako proiektua Malerrekan ikusteko aukera izanen da. Miel Mindegia edo Xanti Uhalde dira dokumentalean agertuko diren pertsonetako batzuk. Paraje ederrak ere ikusgai izanen dira. Bertizko Natur Parkea edo Donamariako Jauregia dorretxeak, bertze hainbatekin batera.

### Euskaltegia

Doneztebeko IKA euskaltegiak ikasturteko bigarren matrikulazio epea zabalik du otsailaren 3ra arte. On-line edo klase presentzialak jasoz, maila guztiak (baita EGA edo C1 titulua ere) lortzeko aukera eskaintzen du. Interesatuek *malerreka@ikaeuskaltegiak.eus* helbidera idatzi edo 948 451555 telefonora deitzen ahal dute.

# MALERREKA

**KULTURA** ➜ OTSAILAREN 4AN ZUBIETAKO ESKOLAN

## Argibel Euba ikerlariak 'Basker' dokumentala aurkeztuko du

1960. hamarkadan Zubietan grabatutako inauteriak ageri dira Suediako filman

**TTIPI-TTAPA**

Argibel Euba ikerlariak *Basker* izeneko dokumentalaren aurkezpena eginen du otsailaren 4an arratsaldeko 7etan Zubietako eskolan. Dokumental horretan Dan Grenholm eta Lennart Olson suediarrek 60. hamarkadan Euskal Herriko zenbait lekutan filmatutako lanak ikusi ahal izanen ditugu. Zubietako inauteriak agertzen dira irudi horien artean, beraz aukera polita izanen dugu ikusteko. Argibelek berak filmaren inguruko aurkezpena eginen du, ondoren 40 minutuko dokumentala eskaini eta bukaeran inauterietako irudietan zentratuko da.











ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

### Errege Bezperako eskea egin dute Zubietako haurrek

Errege bezperan goizean goiz Zubietako haurrak herriko etxeetan barrena eskea egin zuten joareak jantzita. Urteak joan eta urteak etorri ohiturari eutsi eta errepikatzen da, eta ikusten denez, joaldunek ere jarraipena ziurtatuta daukate! Nahiz eta -5° egin, hortxe ibili ziren dena emanez gure ttikiak!!!



ARGAZKIA: EDORTA MURUA

### Iturengo Kenpo kaiko ikasleak gerriko berriarekin

Argazkian, Iturenen Kenpo Kai ikasten duten haurrak ageri dira, Modesto Ordoki irakaslearekin. Berriki gerriko berriak jaso dituzte eta horiek estraineko aldiz dituztela, kontent agertzen dira argazkian.

# DONAMARIA

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 3AN ETA 4AN

## Inaute saltsa otsaileko lehen asteburuan dastatzeko



UTZITAKO ARGAZKIA
Donamariko gazteek ederki pasatzeko aukera izanen dute aurten ere inauterietan.

**TTIPI-TTAPA**

Otsaileko lehen asteburuan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Donamarian.

**ORTZIRALA, OTSAILAK 3**

Herriko gazteak auzoetan barna ibiliko dira eskean mozorrotuta.

Bazkaria eta afaria Herriko Ostatuan egingo dituzte.

**LARUNBATA, OTSAILAK 4**

Goizean gazteak Herriko Ostatuan elkartuko dira gosaltzeko. Ondoren, auzoz auzo ibiliko dira eskean Agerralde akordeoilariren laguntzaz. Bazkaldu ondotik herrian ibiliko dira eskean.

Arratsaldeko 4ak aldera haurrak eta gurasoak plazan elkartuko dira eta orga apainduetan Artze aldera abiatuko dira hangoekin elkartzeko. Gero Artze auzotik hasiko dira herriari itzulia ematen. Haur nahiz helduak mozorroturik joanen dira. 20:30 aldera haur eta gurasoen afaria Herriko Ostatuan. Ondoren gazte eta helduek ere afaria eginen dute bertan.

Hurrengo asteburuan, otsailaren 11n, gazteak elkartuko dira kontuak egiteko.

# BEINTZA-LABAIEN

**PROPOSAMENAK ILBELTZAREN 30A ARTE AURKEZ DAITEZKE UDALETXEAN**

## Labaiengo Ostatua alokatzeko lehiaketa atera da

**TTIPI-TTAPA**

Beintza-Labaiengo Udalak, abenduaren 19an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa irekian ateratzea Labaiengo ostatuaren errentamendua. Proposamenak Beintza-Labaiengo udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko dira urtarrilaren 30eko goizeko 10:30 arte.

Lehiaketa honetan parte hartzeko behin-behineko fidantza 300 eurokoa da. Lizitazio prezioa %20 jeitsi da, beraz, 240 eurokoa izanen da (BEZ kanpo).

Proposamenak, gutunazal itxian aurkeztuko dira, Udalak onetsitako baldintzen orrian aipatzen diren agiriekin batera, Beintza-Labaiengo Udaleko idazkaritzan. Horretarako epea, urtarrilaren 30eko goizeko 10:30ean bukatuko da.

Informazio gehiago eta baldintzen berri Beintza-Labaiengo udaletxean izan dezake interesa duenak. Udaletxeko ordutegia: astelehena eta ortziralea, 8etatik 11etara.



# EZKURRA

**GIZARTEA** ➜ URTARRILAREN 16AN

## Txerri bodaren ohiturari eutsi dio aurten ere Gorostiaga-Goñi familiak



320 kiloko bi zerri hil zituzten

**Fernando ETXEBERRIA**

Txerri hiltzearen ohitura ia desagertu da, gizarte industrialak nekazaritza eta abeltzaintza ordezkatu zuenetik. Baina Gorostiaga-Goñi familiak ohiturari eusten dio joan den mendetik. Gorostiagaren aitonak, Barrankatik etorri eta Ispillean Barranka izeneko jatetxea jarri zuen. Urtarrilaren 16an, herritar talde bat bildu zen, Leitzako J.B Zestau zerri-hiltzailea buru zutela eta 320 bat kilo pisatu zuten bi zerri hil zituzten. Emakumeek zerrien odola bildu eta ehun odolki baino gehiago egin zituzten. Goiz erdian gosaltzeko geldialdia egin eta lanean segitu zuten, zerriak kanalean ireki eta barrenak atera ondotik, idortzeko. Arratsaldean bi animaliak zatitu zituzten, urdaiazpiko, txorizo, saiheski eta solomoak egiteko. Horietako batzuk afarian dastatu eta gero, mus partida batzuk jokatu zituzten.





ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Zerri hiltzearen ondotik, zatitzea eta odolki egitea etorri zen.

**AURTENGOAK MARTXOAN EGINGO DITUZTE**

### Inauterien gorabeherak historian

**F. ETXEBERRIA**

Normalean asteburuetan egiten ziren inauteriak ospatzeko ohitura ere galdu egin da. Salbuespen batekin: Joan den mende hasieran gazteek antolatzen zituzten inauteriak eta udaletxera jotzen zuten dirulaguntza eskatzera. Urteren batean gehiegi eskatu eta ukatu omen zitzaien laguntza. Gazteak haserretu eta inauteriak ez ospatzea erabaki zuten, baina zinegotziek eta zenbait herritarrek ospatu omen zituzten asteburu batean. Gazteek, oraindik haserreago, hurrengo asteburuan egin omen zuten juerga.

Azken urteetan berriz ere inauteria berreskuratzeko saiakera egiten ari dira. Parte-hartzaileak etxez etxe ibiltzen dira puskak biltzen. Gero, batzuk ostatuan biltzen dira bazkaltzera, baina ekitaldi nagusia afaria izan ohi da, musika eta bertsolariekin. Aurtengoen data ez dute zehaztu oraindik, baina badirudi martxoan izanen dela. Udalak egitaraua aurkeztuko du aurrerago.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

**Urte berriari ongietorria**

Abenduaren 31n Leitza, Ezkurra, Eratsun eta Saldiasko 50 bat bizilagun bildu ziren Barranka ostatuan, Elxeko (Alacant) zenbait turistekin batera, urte zaharra agurtu eta berriari umorez ongietorria emateko, rantxera eta bertsoak kantatuz. Goizaldeko ordu txikiak arte segitu omen zuen festak.

UDABERRIRAKO PRESTATZEN

# Sasoian sasoiko lanak

Udaberria ate joka dugunez, garai egokia da lorategi eta mendietan zenbait lan egiten hasteko, natura berriro ere ernatu aitzinetik, guztia prest uzteko.



**Zuhaitzak bota**
Ilbehera da materialetarako zuhaitzak botatzeko momentu egokia, baita su-egurretarako egur gogorrak botatzekoa ere.

**Ongarritu**
Otsail hondarrera arte, fruitu arboladiak, lore multzoak, zuhaizpeak, belazeak eta zuhaixkapeak ongarritzeko aukera izanen dugu.

**Landaketak egin**
Izotzik egiten ez duenean, hosto iraunkorreko eta erorkorreko landareak ere landa daitezke. Dena den, komeni da lurra hezeegia ez egotea. Zein zuhaixka landatu erabakitzerakoan, bi irizpide har litezke kontuan, batetik lurrak berak zer eskatzen eta ematen duen eta bertzetik ustiatzaileak zein helburu dituen. Espezieen nahasketak ere, onura besterik ez dakar: konpetentziak makalena ere bizkortzen du eta etekina denboran etengabekoa bihurtzen da. Orain batzuk, gero bertze batzuk landa litezke: su-egurra dela, biomasa dela, zur-egurra dela... helburuaren arabera.



**Kimaketa edo mugarratzea**
Azarotik udaberri aldera arte kimaketa edo mugarratzea egiteko sasoirik onena da. Landarean egindako ebaketa hauei esker enborra eta adarrak indartu, hazkuntza erregulatu eta kaltetuta edo gaixorik dauden atalak kenduko dizkiogu landareari. Kimaketak zuhaitzari bizitza ere luzatzen dio, haizete eta elurteen kontra egonkorragoa bihurtzen du, bolumena txikitzen baitio. Kimatzen ez bada zuhaitza bera ere arriskuan egon liteke, adar-karga izugarria hartzen duelako.



## Tresneria egokia

Lorategi, mendi edo baratzean lanean aritzeko tresneria egokia eskura izateak denbora aurreztu eta lana errazago egitea dakar. Eskuzkoak, elektrikoak... aukera zabala dago merkatuan eta beharraren arabera, bat edo bertzea erabil genezake. Dena den, badira uste okerrak ere. Kimatzeko orduan erraterako, adarraren tamainaren arabera hautatu behar dira tresnak eta ez aunitzek uste bezala landarearen tamainaren arabera. Adaska txikiak direnean, aski dugu esku-guraize txikiarekin eta bertzela zerra da egokiena.

ALTZURI
MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK
SU EGURRA ETA PIKETEAK SALGAI
Leku-Eder, Bustitz · 31791 SUNBILLA
altzurisl@yahoo.es · Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 · 699 461 394

Carlos Txoperena
mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK
Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

ezpala
Ingurumen Zerbitzuak
• PINADIEN BALORAZIOAK
• LUR NEURKETAK
• MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
• INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN
ANDRES ZELAIETA ELTZAURDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

LARRETXEA EGURRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri.
Piketeak eta sutarako egurra.

Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427



GOMENDIOAK

# Neguko loalditik, udaberriko loraldira!

Udaberrian etxe inguruak kolorez apainduta ikusi nahi izaten ditugu gehienok. Emaitza horretara iristeko, ordea, aukeraketa egokia egin eta zenbait aholku kontuan izatea komeni da. Orientazioa, lur klasea, lorategiari eskaini nahi diogun denbora... asko dira kontuan hartu beharrekoak eta guztiaren gainetik, toki bakoitzean zer landatzea komeni den jakitea.

## Egutera edo laiotza?



Loreak argira egiten duenez, komeni da landareak norabide egokian jartzea. Ez dira ahaztu behar landare bakoitzaren berezko ezaugarriak; batzuk nahiago dute laiotza eta bertzeak berriz egutera. Toki eguzkitsuetarako arrosak, tagetesak, margaritak eta txinatar krabelinak gomendatzen dituzte. Itzal tokia bada hortentsiak, azaleak, kameliak, begoniak eta alegriak.

## Landatzeko garaia



Urtarriletik aitzinera hostoa galdetzen duten zuhaitzak, igokariak, fruitu arbolak eta zuhaixkak landa litezke. Dena den, kontuz ibili behar da izotzarekin eta landatutakoan sustraien arteko lurra ondo zanpatu behar da, zirrikiturik utzi gabe, hotza sustraietara iritsi ez dadin.



Urte osoan balkoi, terraza edo lorategiak berde kolorez apainduta eduki nahi dituztenentzat heskaia ere aukera egokia da, irmo eusten baitie edozein eguraldi aldaketari. Landare igokariak jartzea bertze aukera bat da, espazioa mugatu eta intimitatea lortzen baita.

## Gerora fruitua eman dezaten



Fruitu arboladiak ongarritzeko momentua ere bada eta iaz gaitzen erasoa izan bazen, neguko olio tratamendua egitekoa. Fruitu arboletan adarreko txertoak berriz, izerdia mugitzen hasi aurretik egitea komeni da, beraz, otsailean adi gerezi, aran, melokotoi eta goizeko fruitu arbolekin (udare…).













UDABERRIA
DATOR,
PRESTA ZAITEZ!
Aukera paregabea Landiflor loredendan
Rosa
Hortensia
Narciso
Tulipán
Azalea
Eskaintza zabala
denboraldiko loreetan,
landareetan...
Eta baita fruta arboletan ere.
Lore ontzi, lur ongarri
eta lorategi osagarriak
zuen esku.
Landiflorren ere Venta Peio
fideltasun txartela
erabili daiteke.
VENTA PEIO
La Carte de Fidélité
Landiflor
Landiflor zure loredenda egunero
irekia: 9.30 - 12.30 / 13.30 - 19.00
Barrio Dantxarinea 31712 URDAZUBI
landiflor@ventapeio.com
VENTA PEIO
Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean
DANTXARINEA IBARDIN VALCARLOS BEHOBIA
www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es) (ext: 612)

# ARKUPEAK

ELKARTEA ➜ 2017. URTEAN

## Urte berriarekin jarduera berriak ere hasi ditu jubilatuen elkarteak

Ikastaro ezberdinetan izen emateko epea ilbeltzaren 31n bukatuko da eta mendi taldeak larunbat honetan eginen du urteko lehen irteera Legasan





ARGAZKIAK: FERNDANDO ETXEBERRIA
Arkupeak elkarteko herrietako ordezkariak, Doneztebeko egoitzako bilkura batea.

**Fernando ETXEBERRIA**

Arkupeak elkarteak antolatzen dituen ikastaro desberdinetan izena emateko epea urtarrilaren 31 arte zabalik dago. Urtarrilean eta otsailean herrietako ospakizunak eta mus txapelketak ere egiten ari dira.

Urtarrilaren 26an urteko lehen mendi irteera eginen dute Legasatik eta otsailaren 16an ateraldiekin hasiko dira. Hain zuzen, Pradejonen (Errioxa) dagoen txanpinoi edo barrengorri haztegi handiena bisitatuko dute. Ondotik Azkoienen (Castejón) bazkaldu eta Erriberriko gaztelua bisitatuko dute.

Egun bat baino gehiagoko lehen bidaia Portugalera eginen dute apirilaren 29tik maiatzaren 6ra. Izen-emateko datak otsailaren 20, 21 eta 22a izanen dira eta elkartetik gogorarazi dutenez, hoteletan bakarkako hiru logela bakarrik onartzen dituzte.

### Loteria

Aurten loteriarekin suertea izan du Arkupeak elkarteak, bi zenbakiak sarituak izan baititu. Bat, sari nagusia zuen 53.163 zenbakiaren bukaera bera izateagatik eta bestea 85.547 zenbakiaren "pedrea" delakoa egokitu zaiolako. Bankuek zuzenean ordaintzen ez dutenez, abenduaren 29an egindako ordezkarien batzarrean bazkideek nolabait kobratzeko nola egin aztertu zuten. Lehenago, Doneztebeko bulegoak, mesede handi bat eginez, bertara joaten zirenei ordaintzeko borondatea agertu zuen. Orain, luzez horren inguruan jardun ondotik, delegatu bakoitzak ordainketarako modurik egokiena bilatzeko ardura hartu zuen.

### 2017ko solasaldiak

Aurten bi hitzaldi antolatzeko aukera aztertzen ari dira, iazko esperientzia ona ikusiz. Gaurkotasun eta garrantziaren aldetik, solasaldi bat Iktusari buruzkoa izanen da. Eritasun honek datu kezkagarriak uzten ditu, baina prebentzioa ere posible da, dieta orekatu batekin, ariketak eginez eta medikuaren kontrolarekin.

# LANA

LANGABEZIKO DATUAK

## 897 langabeturekin bukatu da 2016. urtea eskualdean

**TTIPI-TTAPA**

2016. urte bukaeran 897 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroan baino baino 5 gehiago. Halere, azkeneko urte bukaerei erreparatuta daturik baikorrena da, iazko abenduan baino 113 langabetu guttiago baitira, 2014 urte bukaeran baino 287 guttiago edo 2013koan baino 500 guttiago, erraterako.

2016ko abenduko gorabeherak kontuan hartuz, 584 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 49 bakarrik mugagabeak.

### 2016. URTEKO BILAKAERA

2015. urtea 1.010 langabeturekin bukatu ondotik, 2016ko urtarrila berriz ere hil beltza izan zen eta 89 lagun gehiago izan ziren langabezian, 1.099. Otsailean 1.088ra jautsi zen (-11); martxoan, mila laguneko langa jautsi zuen, 969 langabeturekin zen (-119); apirilean 977 (+8); maiatzean 920 (-57); ekainean 893 (-27); uztailean 894 (+1); abuztuan 905 (+11); irailean 894 (-11); urrian izan zen urte osoko daturik onena, 860 langabeturekin (-34); azaroan 892 (+32) eta abenduan 5 gehiago (897 denera).

HITZORDUAK ➔ 2017 URTEA

# Mendibil Mendi taldeak zehaztu ditu aurtengo hitzorduak



ARGAZKIA: MENDIBIL

Herriko mugetan barna ibilaldia egin zuten Mendibil Mendi taldekoek.

## Mendi irteerak eta kultur ekitaldi ugari aukeran

JM BARRIOLA

Mendibil Mendi Taldeak hilabetero mendi irteerak egin eta urtean zehar zenbait hitzordu interesgarri antolatzen ditu.

Urteko lehenbiziko irteera ilbeltzan eginen dute Irebertik Leitzara. Otsailean, berriz astebururko irteera eginen dute elurretara eta eskiatzeaz gain, martxa nordikako ikastaroa egiteko aukera ere izanen dute. Martxoan Bardeetara joanen dira eta horretaz gain, argazki lehiaketa eta erakusketa antolatzeko asmoa ere badute. Apirilean Mendaur mendira eginen dute ateraldia eta maiatzean berriz Beriainera. Horretaz gain, gazteentzako eskalada saioa ere eginen dute maiatzean. Ekainean Urdaibara joateko asmoa dute Laidatik Lagara arteko bidea egiteko eta umeentzat irteera ere izanen da. Irailean Pirinioetara eta urrian mikologia astearen baitan, Leitzalarrera irteera eginen dute eta Toloñora igotzeko asmoa ere badute. Azaroan Anbotora eta abenduan Leitzaldean eginen dute irteera urtea bazkari eder batekin bukatuz. Ahal denean gaueko irteera ere egin nahiko lukete. Eguraldia eta beste baldintza batzuk tarteko egun zehatzak aurrerago aipatuko dituzte.



ARGAZKIA: MENDIBIL

### Presoen egoera salatzeko zenbait ekimen egin dira

Abenduaren 23an Kalera Kalera ekimenarekin bat eginez, Udaletxean itxialdia egin zuten hainbat herritarrek eta 31 arratsaldean manifestazioa izan zen. Ilbeltzaren 6an mendi irteera izan zen eta inguruko herrietakoekin batera, Santabarbara mendi tontorrera, garai batean zonaldeko gaztelua zegoen lekuraino igo ziren 50 bat lagun. Ilbeltzaren 14an bi autobus handi joan ziren Bilboraino Sarek deitutako manifestaziora.

750 LASTERKARIKO MUGA

## EHMEn izen-emateko epea otsailaren 1ean irekiko da

JM BARRIOLA

Ekainaren 3an izanen da Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa. Aurtengoa bosgarren edizioa izanen da eta aurrekoetan bezalaxe, 67 kilometroko ibilbideari aurre egin beharko diote parte-hartzaileek. Lasterketan antolakuntzak banatuko dituen sariekin batera, Euskal Herriko Federazioko kopa egonen da jokoan. Izen-ematea otsailaren 1ean irekiko da eta gehienez 750 laisterkarik izanen dute tokia.

ZIENTZIA ARLOAN

## Nerea Zabaleta eta Joanes Lizarraga ikerlari leitzarrek sari bana jaso dute

Duela gutxi jakin dugu herriko bi gazte sarituak izan direla zientzia arloan egin duten ekarpenagatik.

Nafarroako Kutxa Fundazioak banatzen duen bikaintasunaren saria lortu du Nerea Zabaletak. Biokimikan lizentziatua da eta 6.500 euroko diru-laguntza izanen du doktoretza-ikerketa atzerrian egiteko. Horri esker, martxotik ekainera bitarte, New Yorken dagoen Albert Einstein institutuan egonaldi bat egiteko aukera izanen du terapia zelularrean gehiago sakonduz.

Joanes Lizarragak berriz, Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena saria eskuratu du. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak 2008an jarri zuten martxan sariketa hau euskarazko ikerketa bultzatu eta sustatu asmoz. Bi urterik behin banatzen dira sariak bost jakintza arlotan. Joanesek Zientzia esperimentalen arloan lortu du saria 'Soka kosmikoen ondorio behagarrien iragarpen eta froga berriak' izenburupean aurkeztutako lanarekin. 2.000 euroko dirusaria eskuratu du.

# GOIZUETA

**KIROLA** ➜ URTARRILAREN 7AN FINALAK

## Arrakastatsua suertatu da herriko lehen pilota txapelketa



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE
Umore Onak antolatutako pilota txapelketako parte-hartzaileetako batzuk.

Nafarroa eta Gipuzkoako 44 pilotarik parte-hartu dute

**TTIPI-TTAPA**

Umore Ona kirol elkarteak antolatutako Goizuetako lehen pilota txapelketako finalak jokatu zituzten urtarrilaren 7an, larunbat goizean Goizuetako udal pilotalekuan. Hiru kategoriatan banatuak jokatu dute: Umeak (benjaminak), kimuak (alebinak) eta gazteak (jubenilak). Kategori bakoitzean zortzi bikote aritu dira, guztira Nafarroako eta Gipuzkoako 48 pilotari.

### FINALETAKO EMAITZAK

**Lagunarteko umeak:** A. Salaberria eta M. Garmendia (Umore Ona), 22 – A. Sagardui eta O. Ruiz (Umore Ona), 18.
**Benjaminak:** J. Salaberria eta M. Salaberria (Umore Ona), 18 – X. Apezetxea eta E. Iturain (Umore Ona), 14
**Alebinak:** A. Salaberria (Umore Ona) eta A. Agesta (Erreka), 18 – O. Legarreta eta B. Apezetxea (Umore Ona), 15
**Jubenilak:** Orbegozo (Añorga) eta Gartzia (Bergara), 7; Sein eta Etxeberria (Oiarpe), 22

Sari banaketan Jon Apezetxea, Asier Olaizola eta Nafarroako Pilota Federazioko Jesús Porron izan ziren.

### ZOZKETA

Txapelketan zehar saldu diren zozketako txartel hauek izan dira sarituak:
1. saria: 1.167 zk.
2. saria: 3.691 zk.
3. saria: 3.801 zk.
4. saria: 1.480 zk.
5. saria: 2.077 zk.

**Ba al zenekien ?**

**Talogile taldeak Feria Egunean lortutako 1.000 euro garbiak gasolindegia sortzeko helburuarekin jaio berria den Goizukoop herri kooperatibak jasoko dituela osorik**



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

### Dani eta Ainara Narbarte anai-arrebak berriz ere oholtzan

Nafarroako III. Trikitixa jaialdia antolatu zuen Nafarroako Trikitixa Elkarteak urtarrilaren 7an Altsasun. Zazpi bikotek parte hartu zuten jaialdian, eta horien artean, herriko Dani eta Ainara Narbarte anai-arrebek parte hartu zuten (gipuzkoarrak ez ziren bakarrak). Aspaldi ez ziren elkarrekin oholtzara igoak eta jaialdi honen aitzakian jende aitzinera atera ziren Altsasuko Iortia aretoan. Danik berak sortutako hiru pieza jo zituzten. Bukaeran omenaldia eskaini zitzaion Patxi Agirreri, azken urteetan Sakanan trikitixa bultzatzen egin duen lana eskertzeko. Horretarako antolatzaileak igo ziren eta Aurreskua jo eta dantzatu zioten. Narbarte anai-arrebekin batera, Laja aita semeak eta Haritz, Etxabe anaiak, Lasa ahizpak, Alkorta anai-arrebak eta Enaitz, Elustondo anai-arrebak eta Etxaniz anaiak aritu ziren. ETBk grabatu zuen saioa eta telebistan eman dute.



ARGAZKIA: UMORE ONA ELKARTEA

### Umore Onako mus txapelketa

Abenduaren 31an jokatu zen Umore Ona elkarteko Mus txapelketa, giro ederrean. 17 bikotek parte hartu zuten eta txapeldunak Xumar eta Iñigo izan ziren, Juan Miel eta Albarori finalean irabazita. Irabazleek oilasko eta txanpain botila bana jaso zuten eta bigarrenek txuleta eta ardo botila bana.

# ARESO

**OSPAKIZUNA** ➜ ESKEA, AFARIAK, MUSIKA...

## Inauteri giroa nagusituko da urtarrilaren 27 eta 28an

Gure esku dago ekimenaren alde sinadurak bilduko dituzte larunbatean



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Eskolako jaialdiarekin emango zaie hasiera inauteriei.

**Juana Mari SAIZAR**

Hilabeteko azken asteburuan kolorez jantziko dira herriko etxe gehienak. Egun gutxi dituzue eskerako atorra armairutik atera edota mozorroa prestatzeko. Ohiturari eutsiz, Lagunartekoek pesta polita prestatu dute eta!

**Urtarrilaren 27an**, ostiralean, 15:00ean eskolako haur eta irakasleek herrian kalejira egingo dute eta segidan Pake Tokin merienda ederra izango dute. Indarrak hartu ondotik, plazan dantzan aritzeko aukera izango da 17:00etatik aurrera. 18:00etan herriko eskea abiatuko da plazatik eta 21:00etan Pake Tokin Lagun Artekoek afaria egingo dute.

**Urtarrilaren 28an**, larunbatean, 09:00etan Pake Tokin Lagun Artekoen gosaria izango da.10:00etan baserrietako eskean hasiko dira eta 17:00etan Karrozen desfilea egingo da plaza zaharretik abiatuta. Iluntzean Gure Esku dago ekimenak sinadurak biltzeko txoko bat jarriko du. Mural bat ere jarriko dute argazkiak ateratzeko eta afal ondoan zozketa bat ere egingo dute. 21:30ean herri afaria izango da Pake Tokin. Tiketak Sastinean daude salgai, 4-12 urte artekoak 8 euro eta 12 urtetik gorakoak 15 euro ordaindu beharko dituzte. Afal ondorena trikitilariek alaituko dute eta festa izango da goizaldera arte.

**GIZARTEA**

### Eskolarako zaintzailea kontratatuko du Udalak

**Juana Mari SAIZAR**

Otsailetik aurrera eskola orduz kanpoko zaintza zerbitzua eskaintzen hasiko dira Nazabal eskolan. Horretarako, Udalak pertsona bat kontratatuko du haurrak bere zaintzapean egon eta bazkaria emateaz arduratzeko. Izen-emateko epea urtarrilaren 24ra arte egon da zabalik. Urtarrilaren 26an euskara froga egingo dute eta urtarrilaren 30ean lanpostuaren ezagutza froga. Bi azterketa horiek pasatzen dituztenen artean elkarrizketa eginen dute. Aukeratua izango den pertsona otsailaren 6an hasiko da lanean eta sei-hilabeterako kontratua izango du. Hurrengo alean esango dizuegu zein izan den aukeratua.

# GOIZUETA

**URTARRILAREN 14AN SUTE BATEK KALTETU ZITUEN**

## Herriko Plazako Maio eta Maritxo etxeetako jabeei elkartasuna adierazi die Udalak

**TTIPI-TTAPA**

Urtarrilaren 14an gertatutako sute baten ondorioz, Goizuetako Herriko plazan dauden bi etxebizitzak, Maiok eta Maritxok, kalte handiak izan dituzte. Etxebizitza bateko bigarren solairuko gela batean piztu zen sua eta teilatua kaltetu zuen. Zati bat erori ere egin zen. Sugarrak ondoko etxebizitzaren teilatura ere ailegatu ziren eta hau ere kaltetu eta hondoratu zuen. Zorionez, ez da zauriturik izan.

Gertakariaren aurrean suhiltzaile eta bolondres taldeak erakusten duen jarrera baloratzekoa dela adierazi du Goizuetako Udalak «ezbeharren aurrean erantzun azkar bat ematea garrantzitsua baita. Larunbatean ere argi geratu zen, beraien borondate eta herriarekiko konpromisoa zenbaterainokoa den. Horregatik guztiagatik, suhiltzaile taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu». Horiekin batera, eskerrak eman nahi dizkiete «gertakariak zeukan larritasuna ikusita, laguntza emateko asmoz gerturatu ziren gainontzeko herritarrei ere. Honekin lotuta, azpimarratu nahi dugu suhiltzaileak direla egoera hauetarako formakuntza jaso dutenak eta beraien esanei kasu egitea garrantzitsua dela».



Sutean kaltetutako familiei elkartasuna ere adierazi nahi diete «Udaletxeko ateak irekiak dituztela adierazi nahi diegu eta Udalaren baliabideak beraien esku daudela egoera honi aurre egiteko.

GIZARTEA ➜ URTARRILAREN 11N EGIN ZUEN OHIKO BATZAR OROKORRA

# Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak egitasmo berriak ditu

GR ibilbideen egitasmoa aurkeztu dute Fitur Ferian Mendi federazioarekin batera




ARGAZKIA: A. AROTZENA
Fitur ferian aurkeztu duten GR ibilbide sarearen mantenuan ere lan eginen du Elkargoak.

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 11n egin zuen Ohiko Batzar Orokorra Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoak. Orohar, 2016 urtea ongi joan da sektorean, krisitik errekuperazio bidean. Kontuak onartu eta 2017ko proiektuak eta aurrekontua aurkeztu eta onartu ziren, guztira 58.324 euroko diru sarrera-irteerak izanen dituena. Proiektuak hauexek dira:

• Web gunea eta Informazioa eta Erreserbatarako Zerbitzua eguneratzea.

• Ekitaldien Agenda kudeatzea.

• Formazio ikastaroak.

• “Zer egin Baztan-Bidasoan” informazio eskuorria

• Hegaztien VIII Jardunaldiak

• Ehizaren XXV Jardunaldi Gastronomikoak

• Eskoletako informazio kanpaina

• EuroVelo-Bide Berdeko informazio eskuorria

• Bisita Gidatuen proiektua

• Baztan-Bidasoako Mapa Zikloturista

• Ederbideari buruzko jardunaldi teknikoa

• Martxa zikloturista Ederbidea-Bide Berdean

• Frantziar Estatuan promozio kanpaina

• Baztan-Bidasoko GRen sarearen mantenimendua

• Feria Turistikoak

Aurten ere Baztan-Bidasoa Turismoa Madrid-Fitur Turismo ferian izan da eta Nafarroako Mendi Federazioarekin batera GR ibilbideen sarea aurkeztu dute. Elkargoa Bartzelonan, Bilbon, Donostian eta atzerriko bertze ferietan ere izanen da.

Baztan-Bidasoa Turismoak 80 bazkide du egun eta 2016an Artisauen Elkartea ere sartu da Elkargoan, guztira 6 elkarte bilduz. Aurten erronka bat onartu du Batzarrak: bi urte pasa ondoren, elkargoaren nondik norakoa eta turismoaren dekalogoari buruzko hausnarketa eginen du Elkargoak 2017an zehar.

## LAN ESKAINTZAK

Bertze aldetik, Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak turismo teknikari bat behar du, astelehenetik ortziralera aritzeko Bertizko Landa Turismo Zentroan (30 ordu astero). Kurrikulumak *info@baztan-bidasoa.com* helbidera bidali behar dira urtarrilaren 26ra bitarte (informazio gehiago ere helbide horretan. Bertizko Landa Turismo Zentroko artisautza denda kudeatzeko ere pertsona bat behar dute. Kurrikulumak helbide elektroniko berera bidali behar dira, otsailaren 1a arte.

ARRANTZA

## Iaz amuarrain kumeen dentsitatea hirukoiztu zen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako izokin-eremuko amuarrainkumeen dentsitatea hirukoiztu egin da 2016an 2015arekin alderatuz; hala, iaz 1.645 arrainkume izan ziren hektarea bakoitzeko, hau da, serie historikoaren batez bestekoa baino % 15 handiagoa. Horrek ekarri du dentsitatea guztira 2016ean 2.295 amuarrainetara igotzea hektarea bakoitzeko (2015ean, 1.183 izan ziren). Baztan-Bidasokoa da baldintza onenetan dagoen arroa.

Hala ere, amuarrainaren balio osoa Nafarroan 1992an izan zen banaz bertzekoaren beheiti segitzen du (% 20), Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak egindako azken txostenean jasotzen denez.

Bertzalde, aipatu behar da 2016an 407 izokin helduk egin zutela Bidasoa ibaian goiti arrabatzeko, Basozaintzak Bera-Lesakako nasan jasotako datuei buruz egindako lehen analisiaren arabera; haiei azken sasoian arrantzatutako 60 izokinak erantsi behar zaizkie.

BAZTAN BIDASOA TURISMO ELKARGOA AGRUPACIÓN TURÍSTICA

BAZTAN-BIDASOA TURISMOA ELKARGOAREN LAN ESKAINTZAK

TURISMO TEKNIKARI BAT BEHAR DA:
• Astelehenetik ostiralera, 30 ordu astero
• Lan egoitza: Bertizko Landa Turismo Zentroa
• Informazio gehiago: info@baztan-bidasoa.com T. 948 592 323
• Kurrikulumak bidali: info@baztan-bidasoa.com
• Epea: otsailak 1, asteazkena

BERTIZKO ARTISAUTZA DENDAREN KUDEAKETA:
• Kokapena: Bertizko Landa Turismo Zentroa
• Lan autonomoa, kontratazioriк gabe
• Informazio gehiago: info@baztan-bidasoa.com T. 948 592 323
• Kurrikulumak bidali: info@baztan-bidasoa.com
• Epea: otsailak 1, asteazkena

GIZARTEA ➔ ILBELTZAREN 6KO BATZARREA

# 2.591,45 euroko irabaziekin akitu zuten urtea Elizondon



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL
Elizondoko alkate berria eta kargodunak, Errege Eguneko batzarraren ondotik.

**Alazne Sansiñenak hartu zuen aginte-makila Errege egunean eta bertze hamalau herrietan ere aukeratu dute alkatea**

TTIPI-TTAPA

Alazne Sansiñena Lertxundik hartu zuen Errege egunean Elizondoko alkatearen aginte-makila, Mikel Sobrinoren eskutik. Batzarre berean, joan den urteko kontuak itxi zituzten, 2.591,45 euroko irabaziekin.

Hain zuzen, 2016an 117.487,40 euroko diru sarrerak izan zituzten Elizondon eta 114.896,35 euroko irteerak. Urte hasieran 39.204,26 euroko saldoa zenez, gaur egun 41.795,71 euro ditu Elizondoko herriak. Dena den, Iriarte pilotalekuaren teilatua egiteko lanetarako 30.000 euro bideratuko ditu aurten Elizondoko herriak (aurrekontuaren %20a).

Alazne Sansiñenak 42 urte ditu eta Elizondoko hirugarren emakume alkatea izanen da, Ana Mari Marin eta Pilar Munarrizen ondotik. Berekin batera, kargodun lanean ariko dira azken bi alkateak, Xabi Torres eta Mikel Sobrino, baita Luis Javier Laurnagarai, Eneko Eskudero, Juan Mari Maia, Kepa Lazaro, Josune Bertiz, Xabier Arregi, Uxoa Garmendia, Javier Aleman, Andres Barberena eta Imanol Arretxea ere.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL
Alazne Sansiñena Elizondoko alkatea, aginte-makilarekin.

**Herrietako alkateak**

| | |
|---|---|
| Almandoz | Luis Roldan |
| Amaiur | Mikel Mujika |
| Aniz | Ainhoa Maritorena |
| Arizkun | Asier Lizartza |
| Arraioz | Joxelu Retegi |
| Azpilkueta | M.A. Azkarraga |
| Berroeta | Carlos Garaikoetxea |
| Elbete | Fermin Almandoz |
| Elizondo | Alazne Sansiñena |
| Erratzu | Miguel Etxandi |
| Gartzain | Dani Arraztoa |
| Irurita | Pello Obregozo |
| Lekaroz | Mattari Plaza |
| Oronoz | Ruth Peña |
| Ziga | Juana Mª Gortari |



# BAZTAN

**GIZARTEA ➜** NAFARROAKO GOBERNUAK ENPRESEI

## Lekarozko Enpresa Campusean erraztasunak eskaintzen dizkie

28.000 metro koadro ditu partzela malguetan banatuak

**TTIPI-TTAPA**

Lekarozko Enpresa Campusean 28.000 metro koadro ditu Nafarroako Gobernuak, partzela malguetan banatuta enpresak bertan instala daitezen; Garapen Ekonomikorako Departamentuak ematen dituen inbertsio eta berrikuntzarako laguntzak eskuratu ahalko dituzte eta, horrez gain, Nasuvinsa enpresa publikoak eraikitako instalazioak alokatu ahalko dituzte.

Lurzorua urbanizatuta dago erabat eta beharrezko zerbitzu guztiak ditu. Campusak 120.000 metro koadroko azalera hartzen du, eta Kaputxinoen eskolako eliza zaharrean dagoen enpresa-haztegi ere badu, proiektuak fase goiztiarretan hartzeko, bai eta ikasgelak dituen baliabide nahiz jardueren zentro bat ere enpresa-topaketak, ikastaroak, jardunaldiak edo mintegiak egiteko bertan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lekarozko campusa eta ezkerrean, instalatu berri den farmazia-enpresa.

Empresa-campus horren merkataritza-potentzialtasuna optimizatzeko, Nafarroako Gobernuak bere espezializazioan lanean dihardu Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko espezializazio adimentsuaren estrategietan zehaztutako lehentasunezko azpisektoreetan; izan ere, Lekaroz Iruñeak, Donostiak eta Baionak osatutako triangeluaren erdian dago. Hala, bio-osasunekoak, sormen-industriakoak eta digitalekoak, nekazaritza-elikagaien teknologienak, eta energia berriztagarrienak eta efizientzia energetikokoenak aztertzen ari dira, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusi Izaskun Goñik ezagutarazi duenez.

Aurrez, toki horretan bertan interesa izan dezaketen enpresetarako aurkezpen bat egin da, eta gauza bera egin zen abenduaren 22an Iruñen eta Miarritzen. Gogora ekarri behar da, berriki jadanik instalatu dela Lekarozen farmazia-enpresa bat, 7,5 milioi euroko inbertsioa eginez eta 30 lanpostu sortuz.

### FLASH

#### Ene kantak-en Astonauta

Ene Kantak taldeak *Astonauta. Mundu berri bat eraikitzen* ikuskizuna eskainiko du ilbeltzaren 28an, larunbatean 17:00etan Elizondoko pilotalekuan. Sarrerak 6 eurotan salgai daude Axularren eta Fantxiken (Elizondo), Titi ostatuan (Doneztebe), Miren Oyarzabal farmazian (Urdazubi) eta Larraintzarko Zibikoan.

#### Bertso afaria Erratzun

Erratzuko Kultur Elkarteak antolatuta bertso afaria izanen da ilbeltzaren 28an, larunbatean 21:00etan. Agin Laburu Aitor Mendiluze, Iñigo Mantzizidor *Mantxi* eta Sustrai Colina ariko dira kantari, Fernando Anbustegi gai-jartzaile dutela.

#### ‘Bi izarren kalenturak’ Iruritan

Iñake Irastorza eta Ane Gabarain aktoreen eskutik *Bi izarren kalenturak* helduendako antzezlana ikusgai izanen da ilbeltzaren 29an, igandean 19:00etan Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bgunean.









GIZARTEA ➜ ABELZAINTZA

# Erdizen aziendendako korlea egin du Balleko Etxeak


UTZITAKO ARGAZKIA

Akazia esolekin egindako korleak 15x8 metro neurtzen ditu.

**Lana Harri-lan enpresak egin du eta denera, 15.391 euroko kostua izan du**

TTIPI-TTAPA

Erdizko bazkaleku komunaleko nekazariekin urtero egiten den bilkuran Pitzamar alderdian aziendendako korlea egitea behin eta berriz eskatu izan da. Aitzineko urteetako aurrekontu murritzarengatik orain artio ezin izan da egin; modu horretan, 2016ko azaroaren hondar aldean hasi eta abenduaren erdi alderat akitu dira hiru astez luzatu diren lan hauek.

Korlea aziendak bildu eta markatzeko egin da, txertoak emateko eta eri diren azienda buruak tratatzeko. Korleak 15x8 metro neurtzen du eta akazia esolekin egin da. Gainera, aziendak korlerat bildu ahal izateko 200 metroko hesidura egin da. Korlearen zola berdintzeko mendiari ebaki bat ere egin zaio. Lana Harri-lan enpresak egin du eta, denera, 15.391 euroko kostua izan du. Erdizko herri bazkalekuko abeltzainekin bilkura martxoaren 3an eginen da eta, urteko lanen balorazioa egiteaz gain ingurua mantendu eta hobetzeko proposamenak bilduko dira.

### Ba al zenekien ?

**Elizondoko Lanbide Eskolan 50. urteurrena ospatzeko egun berezia antolatzen ari direla maiatzaren 6rako. Egun horretan, bazkaria izanen da. Laster, bazkariaren txartelak salgai jarriko dituzte.**



# BAZTAN

**GIZARTEA ➔** BESTETAN EZ DA SALAKETARIK IZAN, «BAINA KONTZIENTZIAZIO FALTAGATIK DELA USTE DUGU»

# Eraso sexisten aurkako protokoloa baloratu du Bilgune Feministak

Aurtengo udara begira formakuntza saioak prestatuko dituzte

**TTIPI-TTAPA**

2016. urtea bukatu zaigun honetan, eta 2017aren bidea abiatu dugularik, Baztango Bilgune Feministatik azkeneko urte honetan egindako lanaren balorazioa egin eta aurtengo prestatu dituztenak azaldu dituzte.

2016. urtean Baztango herri gehienetan eraso sexisten aurkako protokoloa martxan paratzea lortu zuten. «Izan ere, Arraioz, Elbete eta Zigan ezik, bertze herri guztietan lortu dugu protokoloaren berri eman eta herriko besta batzordeekin informazio trukaketa egitea. Beraz, gurekin elkarlanean aritu diren herriak eskertu eta zoriondu nahi ditugu. Etorkizunari begira, aurten lortu ez bada ere, datozen urteetan herri guztietan protokolo hau martxan paratu nahiko genuke», aipatu dute Bilgune Feministatik.

Protokoloaren balorazioa egiteko aukera izan dute ia herri guztiekin. Orokorrean, besta batzordeen aldetik balorazioa arras positiboa izan da eta hauek egindako ekarpenei esker hobetzeko arloak ere identifikatu dituzte:«Aurtengo bestei begira hutsune horiek betetzen saiatuko gara. Informazioa lehenago helaraziz, formazioa eskainiz eta gaiaren inguruan interesa piztuz».

Protokoloa martxan paratu bada ere ez da herriko bestetan salaketarik izan. «Berez hori berri ona izaten ahal den arren –dio Bilgune Feministak–, aunitzetan gertatzen da, erasoak gertatu eta erasotua aski babestuta sentitu ez izana salaketa hori paratzeko. Bertze kasuetan erasoa identifikatzeko zalantzak edukitzea eta horregatik ez salatzea. Adibide gisa paratzen dugu Elizondoko bestetan Elizondoko Elizan dantzatzen den Mutildantza baztertzailea. Hori ere emakumeen aurka ematen den eraso sexista baita, kolektiboa gainera. Berez, salaketa eza erasoen falta baina gehiago, kontzientziazio faltagatik dela uste dugu».

Horregatik, Bilgune Feministatik, udara begira formakuntza saioak antolatuko dituzte. Alde batetik, emakumeentzat autodefentsa feminista tailerrak, «emakumeok gure burua ahaldunduz indarkeria matxistari aurre egiteko prestatzeko». Bertze aldetik, protokoloaren aplikazioari begira interesa duen guztientzat, erasoak identifikatzen laguntzeko eta protokoloaren eraginkortasuna hobetzeko tailerrak ere eginen dituzte.

Formakuntza tailer hauen garrantzia azpimarratu eta bertan parte hartzera animatu nahi dute Bilgune Feministatik, «guztion ardura baita indarkeria matxistarekin bukatzea».



UTZITAKO ARGAZKIA

### Inauteri goiztiarrak ospatu dituzte Anizen eta Berroetan

Urtero gisara aurten ere goiztiarrak izan dira Anizko nauteriak. Ohitura zaharra mantenduz berroetarren bisita jaso dute aniztarrek ilbeltzaren 14an; lagun artean ederki gosaldu eta etxez etxe ibili dira gazteak, trikitixa eta panderoak alaituta. Ondotik, herritar anitze elkartean afaldu eta dantzaldiaz gozatzeko aukera izan dute. Giro bikaina eta umorea ez da falta izan. Ilbeltzaren 21ean, Berroetan bildu ziren bi herrietako gazteak inauteriaz gozatzera.

**FLASH**

### Neighbor taldeak kontzertua

Josh Cheaham eta Maite Larburuk osatutako Neighbor bikoteak kontzertua eskainiko du otsailaren 5ean, igande arratsaldeko 7etan Arizkunenea Kultur Etxean. Baztango Kultura Batzordeak Arte eta Kultura egitarauaren baitan antolatu du eta sarrera doan izanen da.

### Paxaka txapelketa

Zortzi hirukote hasiak dira Baztan-Errekako XVII. Paxaka txapelketan. Otsailaren 4an final laurdenak jokatuko dituzte, otsailaren 11n finalerdiak eta otsailaren 18an finala Iruritako Aranabia pilotalekuan.

**'OBJEKTU GALDUAK'**

## Mikel Zabaltzari buruzko dokumentala lagunduko du Udalak

**TTIPI-TTAPA**

Abenduaren 23an egin zen osoko bilkuran Mikel Zabaltza orbaiztarraren desagerpen eta hilketa oroitzen duen *Objektu galduak* dokumentala diruz laguntzeko erabakia hartu zen. Orain hogeita hamaika urte Guardia Zibilak Mikel Zabaltza atxilotu eta hogei egunez desagertuta egon ondotik Bidasoa ugaldean hilotz agertu zen. Lehendabiziko momentutik Intxaurrondoko kuartelean torturapean hil zutela salatu zen. Ordukoak oroitzeko Ahotsak-ek *Objektu galduak* izeneko dokumentala eginen du eta, horretarako, dirulaguntza kanpaina hasi dute. Hala, Baztango Udalak EH Bildu eta Ezkerraren aldeko 6 bozkekin, eta Geroa Bai, Auzolanean eta UPNren aurkako 6ekin, alkatearen kalitatezko botoa baliatuz dokumentala egin ahal izateko 750 euroko dirulaguntza ematea onartu zuen.

Bertzalde, dokumentalaren izenburuari buruz, aipagarria da *Objektu galduak* nondik heldu den: Mikel Zabaltzaren ama semearen desagerpenari buruz Intxaurrondoko kuartelerat galdezka joan zelarik, han zen Guardia Zibilak, semea desagerturik bazuen objetu galduen bulegorat joateko erantzun zion.

**GIZARTEA ➜** URTARRILAREN 28AN, 11:00ETAN ELIZONDOKO ARIZKUNENEAN

# Esne sektorearen orainaz eta geroaz aritzeko mahaingurua prestatu dute

## Hazitik Hoziek eta EHNE sindikatuak antolatu dute

**TTIPI-TTAPA**

Apirilaren 1etik aitzinerat Danonek Nafarroako mendialdeko 7 nekazariri esnerik ez diela bilduko iragarri du; tartean dira Baztango bi nekazari. «Honek, ustiategi hauen geroa guztiz baldintzatuko du esplotazioak hestera behartuz. Orain zazpi dira, ondotik zenbat?» diote «azkeneko hamarraldietan esne-sektorea esne-industriaren eta banatzaile handien eskuetan gelditu da. Horri merkatuen liberalizazioa, produkzio eredu intentsiboa, prezioen apaltzea… gehitu behar zaio. Emaitza: gure eskualdeko esne-ustiategiak etorkizunik gabe uztea, zorpetzea, enplegu galera, lurraldea gestionatzeko zailtasunak…. Hori guztia aski ez eta Sorian – Nafarroako inbertsiogileak tarteko- 20.000 behi buruko esne-ustiategia egin nahi dute. Zalantzarik gabe, esplotazio handi honek gure eskualdean zuzenean eraginen du»

Halako kinkan Hazitik Hoziek eta EHNEk esne sektoreari buruz gogoetatzeko mahaingurua antolatu dute Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, urtarrilaren 28an, larunbat goizeko 11:30ean. Mahaiinguruaren izenburua: *Esne sektorearen oraina eta geroa* izanen da eta eleketan arituko direnak: Oier Villanueva, EHNE sindikatuko esne-arloko arduraduna; Mikel Iribarren, Conderation Paysanne- ELBko arduraduna eta Migel Joxe Ariztia nekazari amaiurtarra. Aitor Azkarate, esnegintza arloko nekazaria eta Hazitik Hozieko kidea izanen da moderatzaile.





Argazkiak: Juan Mari Ondikol

### San Antongo aretzea eta zerria zenbaki berarentzat

Gutienez 1867. urtetik egiten da Elizondon Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen aldeko zozketa eta inoiz ez zen halakorik gertatu. Lehen eta bigarren saria, aretzea eta zerria, zenbaki berari egokitu zitzaizkion: 3.822. Ramon Apezetxea Almandozko apezak erosi zuen Foto Zaldua argazki-dendan. Beti bezala, Balleko Etxeko balkoian egin zen zozketa eta lau umek atera zituzten zenbakiak, Elizondoko eskolako ikasleak lauak: Elizondoko Raika eta Keyra Ballarena bixkiak eta Xuban Zelaieta eta Elbeteko Imanol Goienetxe. Hirugarren saria (bildotsa), 7.251 zenbakiari egoitu zitzaion eta laugarren saria, urdaiazpikoa, 2.937 zenbakiari. Zozketa egin baino lehen, txistulariak ibili ziren karriketan, Baztanzopak banatu zituen Jose Mari Zelaietak gidatutako sukaldari taldeak eta bertsolariak ere aritu ziren kantari. Denera, zozketa honekin 7.035 euroko irabazia lortu ditu Zahar Etxeak «gero eta gutiago». Jende aunitzik ere ez zen bildu Elizondoko plazan.



**Pertsonaia**

Juan Miguel IBARRA

### Hondakinen zerbitzuen zotz egindako 300 euroak Zigarat

Azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere Baztango Udalak eta Bortziriak eta Malerrekako Mankomunitateek zonaldeko etxe guztietan banatu den egutegia prestatu dute. Ale bakoitzak zenbaki bat du urtean zehar, hiruhilabetetik behin egiten diren zozketetan parte hartzeko. Saria eskualdeko dendetan gastatzeko 300 euroko erosketa txartela izanen da. 2017ko lehen zenbaki sariduna atera dute eta Zigako Juan Miguel Ibarra Elizalderi egokitu zaio saria.

Zozketa urtarrilaren 4an egin zen eta urtarrilaren 17an, Mikel Ortega Baztango Udaleko zinegotziak eman zion saria Mari Carmeni, Juan Miguelen emazteari. Zorionak eta erosketa on!

# URDAZUBI

**GIZARTEA ➜** AUZOTARRAK UDAL BATZARREAN

## Landibar auzoa urbanizatzeko proiektuak egonezina sortu du


ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Landibar auzorako egitasmoak eztabaida sortu du.

Alkatearen erranetan, proposamenak ez du inor kaltetzen

**Iñigo IMAZ**

Landibar auzoan kezka eta haserrea piztu du Udalak onartu berri duen hirigintza proiektu batek. Kezka, auzoko belagiak urbano izendatzeko proposamenaren aurka daudelako; haserrea, berriz, azken erabakiak izkutuan hartu direlako. Horregatik, azaroaren 25ean, Landibarko auzotar talde bat udal batzarrean izan zen. Landibarrentzako proposatzen den aldaketa gauzatzeko, 1999ko Udal Planaren aldaketa egin behar du Udalak, baina azken hitza, Nafarroako Gobernuak izanen du. Bertaratutakoek ez zuten ulertzen zergatik ez zitzaien deialdirik luzatu, proiektua mahai gainean jarri zenetik, alegazioak aurkeztu eta gaiarekiko interesa azaldu baitzioten Udalari.

### GUNE URBANO IZATERA PASAKO DA

Herriko Etxeak 2014ko abenduaren 19an Landibarko belagi batzuk urbanizatzeko erabakia hartu zuen. Udalaren proiektuari zenbait alegazio aurkeztu zizkioten jabeek. Izan ere, 1999ko Plan Munizipalaren arabera, soilik herriguneak, Dantxarineak eta Leorlasek betetzen dituzte lege zoru urbano kontsideratzeko ezaugarriak. Gainerako auzoak baserri eta landetxe gune bezala definitzen dira gaur egun.

Udal batzarrak 2015eko ekainaren 26an auzotarren alegazio batzuk onartu zituen. Udal gobernuak erabaki zuen, kalifikazio urbanistiko aldetik proposatzen ziren aldaketak belaia horien jabeen kriterioaren arabera egitea. Hau da, aldaketaren aldeko ziren jabeen belagiak birkalifikatu, eta kontra zeudenenak proposamenetik kanpo uzteko erabakia hartu zen, Azkar taldearen baiezko 4 bozkekin, Urdazubi Elgarrekin taldeko 3 zinegotziak abstenitzen ziren bitartean. Ondorioz, jatorrizko proiektuan aurreikusten ziren 18.000 metro koadro urbanizatu beharrean, 6.000 metrora mugatzen zen Azkar taldearen proposamena. Hortaz, 20 etxebizitza eraiki beharrean, 7 etxebizitza eraikitzea baimentzen zen.

### NAFARROAKO GOBERNUAK AZKEN HITZA

Hortaz, 1999ko Planean zuen sailkapena aldatzeko proposamena luzatu zion Udalak Nafarroako Gobernuari. Hori justifikatzeko, Udalaren proiektuak zoru urbanoa kontsideratzeko ezin bestekoak diren zerbitzu eta akzesoak existitzen direla argudiazen du.

Baina, bigarren proposamen hori ez du aintzat hartu Nafarroao Gobernuak, ez baitu aldaketaren justifikaziorik ikusten. Hau da, Udalari emandako erantzunean erraten denaren arabera, hirigintza kriterioak erabili behar dira Udal Planaren aldaketa proposatzeko, eta hortaz, ez da onargarria baldintza berdintsuak dituzten belagi batzuk urbano izendatzea, eta bertzeak ez. Hau da, gune bakarrak kalifikazio urbanistiko bakarra behar du izan. Gainera, Udalak berak onartzen du Landibar auzoak ez duela hazkunde aparteko bat izango etorkizun hurbilean, hortaz, Gobernuak justifikazio txostena exijitu zion Udalari.

### ALKATEAREN USTEZ «PROPOSAMENAK EZ DU INOR KALTETZEN»

Justifikazio txostenaren ordez, Udal Gobernuak jatorrizko proiektua mahaigaineratu du berriro. Horretarako, 2016ko azaroaren 25ean, Udalbatzarrean, Alkateak jatorrizko proposamena berreskuratzea defendatu zuen. Proiektua berdina izanik, ez zuen beharrezko ikusten kalteturik suertatu ziren auzokideei alegazioak egiteko aukera ematea. Azkar taldearen iritziz, Landibar auzoarentzat egiten den urbanizazio proposamenak ez du inor kaltetzen, haatik, etxea eraiki nahi duenak eraiki ahal izanen du, eta nahi ez duenak ez. Gaineratu zuen, bera alkate den bitartean kalifikazio aldaketekin kaltetuak irtengo diren jabeek ez dituztela zerga berriak ordainduko. Oposizioak salatu zuen landa giroko auzoarentzat kaltegarria izanen dela proiektua aprobatzea, izan ere, kalteturik suertatuko diren jabeek ez baitute nahi beren lurrak birkalifikatzea. Proiektu handientzako bertako auzokideekin kontatzea defendatu zuten, izan ere, Udalaren arkitektuek ere onartzen dute Landibarrek datozen urteetan ez duela hazkunde demografiko berezirik izanen.

Aipatu bezala, Landibarko auzotarrek batzarrean parte hartu zuten, beraiekin mintzatu gabe hartu baitu udal gobernuak erabakia.



**POLITIKA ➜** HAUTESKUNDE URTEA IZANEN DA 2017A

# Lau aldiz bozkatzen ahalko da aurten presidentea eta diputatua hautatzeko

Gure barrutian bi hautagai aurkeztu dituzte jada: Sylviane Alaux sozialista eta Maider Arosteguy eskuindarra



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Maider Arosteguy eskuindarra aurkezpenean.

**Franck DOLOSOR**

2017 hauteskunde urtea da. Irailaren 24an Frantziako senatuaren erdia berrituko da eta hautetsiek Pirineo Atlantikoetako hiru senatariak hautatu beharko dituzte. Udaberrian berean errepublikako presidentea hautatzeko hauteskundeak eginen dira apirilaren 23 eta maiatzaren 7an, eta beherala ondotik hauteskunde legegileak ekainaren 11 eta 18an. Senpere eta inguruetako herriak seigarren barrutian kokatzen dira eta bertan bi hautagai daude oraingoz: Sylviane Alaux sozialista, gaur egungo diputatua eta Maider Arosteguy eskuindarra. Ondoko egunetan, Berdeek, FN, EH Bai eta Eusko Alderdi Jeltzaleak beren hautagaiak aurkeztuko dituzte.

Orain arte aurkezpen ofiziala egin duen bakarra Arosteguy izan da Parisen Les Républicains alderdiaren babesa erdietsi bezain laster. François Fillon lagunduko du lehenik presidente izateko eta gero Lapurdiko kostaldeko diputatu aulkia eskuratu nahiko luke Filloni gehiengo indartsua emateko, zonbait erreforma egiteko gisan. Beren lehentasunen artean daude ekonomiaren liberalizazioa, estatuaren agintearen berreskuratzea eta baloreen berrestea.

Arosteguy management sailean ari da lanean. 2008az geroz, Miarritzeko hautetsia da eta duela bi urte departamenduko kontseilari zentrista bilakatu zen. Diputatua hautatua izanen balitz bi karguak utziko lituzke. Joan den udan UDI alderdi zentrista utzi zuen Les Républicains talde eskuindarrean sartzeko Fillon sostengatzeko. Arosteguyren sostengatzaileen artean daude Daniel Poulou diputatu ohia, Angelu, Urruña eta Ziburuko auzapezak, edo Ainhoa eta Azkaineko auzapez ordeak.

2017an sozialisten aldeko haizerik ez da izanen baina Arosteguyk zuhurtziaz jokatu nahi du ez baita deusik eginik, ordezkorik ere ez du oraino hautatu. Ipar Euskal Herriko elkargo bakarraren kontra bozkatu zuenak seigarren barrutiko 25 auzapez, elkarte eta enpresariekin solas eginen du ondoko asteetan bere programa zehazteko.




## Korrika Senperen

AEKren aldeko hogoigarren lasterkaldia ospatuko da martxoaren 30etik apirilaren 8ra arte, Otxandio eta Iruñea artean. Apirilaren lauan herrian barna pasako da Korrika gauerdi eta oren bata artean eta senpertarrek lekukoa garraiatu beharko dute Saratik Zuraide alderaino. Giroa berotzeko Korrika besta eginen da Irungo Ficoba erakustazokan otsailaren 11n. Xehetasunak *www.korrika.eus* atarian.






# SARA

GIZARTEA ➜ URTARRILAREN 13AN LUR BERRI GELAN

## Urteko agiantzak eman ditu auzapezak

**Joana GERENDIAIN**

Auzapezak eta herriko kontseiluak gonbidaturik jende frango hurbildu da Lur Berri gelara urteko agiantzak entzutera urtarrilaren 13an. Elizako, herriko elkarteen, merkatarien, eskolen eta eraikuntzen ordezkariak, xaretako auzapezak, Hego Lapurdiko hiriguneko ordezkariak eta herriko berriemaileak, langileak gonbidatuak ziren.

Axuanta bakoitzak martxan diren eta geroko proiektuak aurkeztu dituzte. Auzapezak Euskal Herriko hirigune bakarrari buruzko xehetasunak eman ditu. Ondotik zintzur bustitze bat eskainia izan da.

### Zumba kurtsoak

Urtarriletik Ione Bengoetxeak Zumba kurtsoak ematen ditu, Olhain eraikineko dantza gelan (lore dendaren ondoan). Tokia erreserbatzeko 0034 628902809 zenbakira deituz behar da edo whatsapp en bidez mezu bat igorriz. Ordutegian asteazkena gehitu du 12:30etik 13:30era.



ARGAZKIA: SARAKO URTXINTXAK

### Mutilen eskubaloi taldea lehen aldiz Urtxintxak elkartean

Sarako Urtxintxak elkartea sortu denetik neska taldeak ukan ditu bakarrik, baina joan den urtarrila hastapenetik ofizialki mutiko talde bat badu senior mailan. Herriko gazte zonbaitzu motibatu dira, zale edo hasiberri, ekipa bat muntatzeko eta elkarteari hats berri bat ekartzeko. Haien lehen matxa urtarrilaren 7an jokatu eta irabazi dute 20-17. Asteburu berean 11 urtez azpikoek 15-15 egin dute eta 18 urtez azpikoek galdegiten 27-14. Urtarrilaren 14an senior neskek bakarrik irabazi dute 26-25, bertze guziek galdu dute 11 urtez azpikoek 28-16, 13 urtez azpikoek 22-21, 15 urtez azpikoek 27-16, 18 urte azpikoentzat 16-14 eta mutikoentzat 27-22. Errugbian, bertzalde, urtarrilaren 7ko matxa azken mementuan anulatua izanki da izotzarengatik baina hala ere jende ainitz hurbildu da Jean Xantakori azken agur bat ematera, minute bat isiltasun errespetatuz. Urtarrilaren 14 ean 17-3 galdu dute Azkaineren kontra.






# EZKONTZAK

**Carlos Rius Pelegri** eta **Elena Ortega Seco**, Igantzikoak Lesakan, abenduaren 31n.

# SORTZEAK

**June Gorostiaga Ordoki**, Oiartzun eta Arantzakoa, urtarrilaren 7an.
**Urki Sagardia Oiartzabal**, Lesakakoa, urtarrilaren 10ean.
**Urki Danboriena Padilla**, Etxalarkoa, urtarrilaren 13an.
**Iker Arburua Adin**, Zugarramurdikoa, abenduaren 26an.
**Enara Torres Lujanbio**, Arantzakoa, urtarrilaren 3an.
**Ainara Blanco**, Sarakoa, abenduaren 3an.
**Pierre Morgant**, Sarakoa, abenduaren 17a.
**Unai Chapelet**, Sarakoa, abenduaren 25ean.
**Oinatz Iratzoki Saint-Esteben**, Sarakoa, urtarrilaren 10ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

# HERIOTZAK

**Maria Lorenza Iturria Arozena**, Goizuetakoa, abenduaren 9an, 87 urte.
**Margarita Legazkue Bidart**, Iturengoa, abenduaren 26an, 91 urte.
**Fidel Altzugarai Grajirena**, Gaztelukoa, abenduaren 30ean, 73 urte.
**Jose Ramon Irazoki Errandonea**, Berakoa, abenduaren 30ean, 68 urte.
**Mirentxo Arburua Elizagoien**, Etxalarkoa, urtarrilaren 2an, 77 urte.
**Inaxi Pikabea Irigoien**, Lesakakoa, urtarrilaren 4an, 95 urte.
**Juan Fermin Mitxelena Larralde**, Lesakakoa, urtarrilaren 4an, 60 urte.
**Luis Mari Francisco Sansinena Bidart**, Urdazubikoa, urtarrilaren 6an, 76 urte.
**Juana Aleman Elizaintzin**, Elizondokoa, urtarrilaren 6an, 87 urte.
**Manuel Igoa Pagola**, Berakoa, urtarrilaren 7an, 80 urte.
**Agustin Txipi Etxabide**, Urdazubikoa, urtarrilaren 8an, 83 urte.
**Jose Landa Gortari**, Lekarozkoa, urtarrilaren 8an, 85 urte.
**Pedro Lasaga Legasa**, Lesakakoa, urtarrilaren 8an, 90 urte.
**Luis Mari Ruiz Mendiburu**, Elizondokoa, urtarrilaren 9an, 61 urte.
**Antonio Telletxea Estrada**, Berakoa, urtarrilaren 9an, 90 urte.
**Carmen Migeltorena Irungarai**, Azpilkuetakoa, urtarrilaren 10ean, 87 urte.
**Segunda Askunze Etxart**, Amaiurkoa, urtarrilaren 11n, 92 urte.
**Martzel Hardoi Gurrutxaga**, Urdazubikoa, urtarrilaren 11n, 84 urte.
**Paquita Eraso Olaetxea**, Elizondokoa, urtarrilaren 11n, 101 urte.
**Maria Luisa Ganboa Aldabe**, Sunbillakoa, urtarrilaren 11n, 99 urte.
**Josetxo Etxegarai Altzugarai**, Lesakakoa, abenduaren 11n, 77 urte.
**Gabina Murillo Domarco**, Leitzakoa, urtarrilaren 12an, 80 urte.
**Bernardo Danboriena Sanzberro**, Etxalarkoa, urtarrilaren 13an, 95 urte.
**Benita Larralde Tapia**, Lesakakoa, urtarrilaren 14an, 81 urte.
**Manuela Bertiz Iparragirre**, Sunbillakoa, urtarrilaren 14an, 98 urte.
**Miguel Jaimerena Salaburu**, Arizkungoa, urtarrilaren 15ean, 89 urte.
**Ines Maria Baztarrika Taberna**, Sunbillakoa, urtarrilaren 15ean, 79 urte.
**Fidel Mutuberria Pikabea**, Arantzakoa, urtarrilaren 16an, 74 urte.
**Miguel Angel Adin Franzesena**, Iruritakoa, urtarrilaren 17an, 81 urte.
**Pello Arretxea Etxeberria**, Gartzaingoa, urtarrilaren 17an, 70 urte.
**Irune Etxeberria Agerrebere**, Lekarozkoa, urtarrilaren 17an, 36 urte.
**Jose Etxeberria Barrenetxe**, Iruritakoa, urtarrilaren 18an, 81 urte.
**Bernard Boyer**, Sarakoa, abenduaren 7an, 58 urte.
**Jean Etxeberri**, Sarakoa, abenduaren 28an, 43 urte.
**Benito Seminario**, Sarakoa, urtarrilaren 8an, 96 urte.
**Jean Ausan**, Sarakoa, urtarrilaren 14an, 86 urte.



**Juan Fermin**
**MITXELENA LARRALDE**
**Lesakan, 2017ko urtarrilaren 4an hil zen, 60 urterekin**

*Sobera abudo joan bazinen ere,*
*beti gogoan eta bihotzean izanen zaitugu*

**C.C. URTXINTXA TXIRRINDULARI TALDEA**



**Jose Ramon**
**IRAZOKI ERRANDONEA**
**Beran, 2016ko abenduaren 30ean**

**ZURE FAMILIA**

**Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guztiei, milesker**



**Jose Ramon**
**IRAZOKI ERRANDONEA**
**Beran, 2016ko abenduaren 30ean**

*Umorez eta alaitsu*
*egoten ginen elkarrekin,*
*eta oroitzapen ahaztezin horiek*
*beti geldituko dira gurekin.*

**ETXEKOAK**

**JAIOTEGUNA**
1997/02/23.
**POSTUA**
Atzelaria.
**PALMARESA (afiz.)**
2016. DV Torneoa.
2016. Biharko Izarrak.
Lezamako Torneoko txapelduna Seniorretan.

**Iñigo MARTINEZ GUERRA** | Berako pilotari profesionala

# «Maila honi eusteko gogotik lan egin beharko dugu»

**Eneritz IRAOLA** | BERA

Tolosako Beotibar pilotalekuko armailetan giro berezia nabari zen urtarrilaren 2an. Are bereziagoa kantxan. Bi lagun baitziren, aurrez aurre eta elkarrekin, profesionaletara jauzia egiten ari zirenak.

Iñigo Martinez eta Ander Errandonea beratarrek, herritar eta lagunen babesa izan zuten pilotalekuan «kantxara atera eta Bera eta Bortzirietako hainbertze jende ezagun ikustea ederra izan zen». Giro beroa nabari zen eta azken emaitza ez zen garrantzitsuena «argi baitzegoen beratar batek irabaziko zuela» diote barrez.

## BIDEAN ELKARREKIN

Berako Eztegara pilotalekuan ezagutu zuten elkar «bortz bat urterekin hasi ginen pilotan Berako klubean eta talde polita bildu ginen». Hain zuzen, Iñigoren ustez «pilota eskolakoen artean sortu zen giro on horrek aunitz lagundu digu pilotan jokatzen segitzeko». Elkarren bikote izan dira aunitzetan eta horregatik, egun berean debutatzeko aukera izatea berezia izan da bientzat «ez dut uste pilotaren historian halakorik aunitzetan gertatu izanen denik. Herri berekoak, egun eta ordu berean debutatzea».

## IKASTEKO GARAIA

Ilusioz gainezka dauden arren, oinak lurrean dituzte «profesionaletara pasa gara, baina horrek ez du deus ziurtatzen. Aukera polita da eta ikasteko garaia da», argi du Anderrek «gure helburua akatsak zuzentzea da, hobetzen joatea eta horrela etorriko dira emaitza onak». Iñigok ere hala uste du «opari bat da debutatzeko erraten dizutenean, baina maila honi eusteko gogotik lan egin beharko dugu. Bi urte ditugu aitzinetik, akatsak zuzendu eta gure hoberena ateratzeko».

Begirada guztien jomugan daudela badakite «presio puntua ere nabari dugu baina guk gurea egin behar dugu. Maila berrira ahalik eta abudoen ohitzen saiatu». Afizionatuetatik profesionaletara, alde handia baitago «aurkariek bertze maila bat dute, pilotak ere dezentez biziagoak dira...» motzean ere azaldu du Iñigok «bertze mundu bat da».

## INDARGUNE ETA AHULGUNEAK

Martinez eta Errandonea jokatzen ikusteko aukera izan dutenek lehenbizikoaren defentsarako gaitasuna eta bigarrenaren erritmoa azpimarratu izan dituzte. Hobetu beharrekoak beraiek aipatu dituzte «ezker airea landu beharra dut eta dena aurrean jokatu beharrean, pilota gehiago atzera ateratzen ikasi» behar duela dio Anderrek. Iñigok berriz,

«Aurkariek bertze maila bat dute, pilotak ere dezentez biziagoak dira... hau bertze mundu bat da. Baina gure onena emateko gogoz gaude, gure ametsa baita».

«Asko dut ikasteko, baina gehienbat eskuina landu beharra dut. Hor falta zait salto txiki bat, ezkerrarekin postura naturalagoa dut pilota jotzerakoan».




## BATAK BERTZEARI BURUZ

**Definitu Ander hitz batean.**
Elektrikoa.

**Ohitura bereziren bat badu?**
Baldin badu, izkutuan darama. Ni behintzat ez naiz konturatu...

**Zein pilotari gogorarazten dizu?**
Aitor Mendizabal.

**Zein da bere jokoaren bereizgarria?**
Sartzen duen erritmoa.

**Ander ERRANDONEA ESPELOSIN** | Berako pilotari profesionala

# «Ahalik eta gehien ikasi eta hobetzen joatea da asmoa»

**JAIOTEGUNA**
1997/08/28
**POSTUA**
Aurrelaria.
**PALAMARESA (afiz.)**
2016. Lezamako Torneoa.
2016. Tolosako 4 1/2a.
2014. Nafarroa eta Euskal Herriko Herri artekoak.

«eskuina landu beharra» azpimarratzen du.

**ERREFERENTZIAK**

Pilotan aritzen den orok izan ohi du bere pilotari maitea eta Iñigo eta Anderrek ere badituzte bereak. Anderrek, aurrelaria izanik,«Irujozalea» dela aitortu du «gehienontzat erreferentea izan da, garai bat markatu duelako. Eta Irujorekin batera, Xala ere klaseko pilotaria iruditu izan zait beti». Iñigori berriz, atzeko kuadroetan jokatzen duten pilotariek deitu diote arreta «ttikitatik Barriola izan dut erreferente gisa. Pilotari bezala toki guztiak babesten ditu, ikaragarria da berari jokatzen ikustea eta bere izaera ere beti miretsi izan dut. Gaur egun indarrean daudenen artean, Albisu, Rezusta eta Zabaletak maila hagitz altua dutela ikusten da. Atzelari bakoitzetik bada zer ikasia».

**BELAUNALDI ALDAKETA**

Pilota munduan belaunaldi aldaketa gertatzen ari den galdetuta, baietz diote «urte askoan goian egon diren pilotariak adinean aurrera doaz eta beraien tokia eskatuz indartsu heldu dira pilotari gazteak». Belaunaldi aldaketa hori barrutik bizi ahal izatea ederra dela dio Anderrek «Altuna, Irribarria.. ikusten dituzu. Txikitatik ezagutzen dituzu eta maila horretan ikustea ikaragarria da». Iñigo ere bat dator «pilotalekuan ematen duten ikuskizuna izugarria da. Haietan fijatu eta haiengandik ikasi beharra dugu».Orain atera den pilotari multzoa gipuzkoarra da gehienbat, baina beraien ustez ez da ahaztu behar «pilotaren historiako izen handiak: Irujo, Olaizola, Bengoetxea... denak nafarrak izan direla. Ea nafar gehiago ateratzen diren...».

**ERRONKA AITZINEAN**

Helburu horiek ordea, urrun ikusten dituzte oraindik «ezin dituzu objetibo horiek markatu. Dena eman eta denborak gure tokian jarriko gaitu». Anderren ustez hobea da «poliki poliki aitzinera egiten joatea».

Bai baitakite, igo beharreko malda gogorrean lehenbiziko zatian daudela «profesionaletako pausoa ematea zaila da baina zaila da aldi berean maila mantentzea» dio Iñigok «joko maila mantendu egin beharra duzu eta konsziente izan behar duzu horretaz. Ezin zara deskuidatu momentu bakar batean ere». Anderren erranetan aurkariak ere adi baitaude «norbait goiti datorrela ikusten badute, haiek ere motibatu eta zure martxan segitzen dizute. Hemen inor ez dago barkatzeko».

Bikote osatuta edo elkarren aurka. Ametsa lortzeko lanean segiko dute, batera hasitako bidean pixkanaka pausoak emanaz.

> «Belaunaldi aldaketa barrutik bizi ahal izatea ederra da. Altuna, Irribarria... ikusten dituzu. Ttikitatik ezagutzen dituzu eta maila horretan ikustea ikaragarria da».

> «Ezker airea landu beharra dut, teknika hori barneratu eta erregulartasun gehiago hartu eta dena aurrean jokatu beharrean, piliota atzera ateratzen ikasi».




## BATAK BERTZEARI BURUZ

**Definitu Iñigo hitz batean.**
Konstantzia

**Ohitura bereziren bat badu?**
Eskumuturrekoek zorte txarra ematen diotela uste du eta ez ditu erabiltzen.

**Zein pilotari gogorarazten dizu?**
Xabi Tolosa.

**Zein da bere jokoaren bereizgarria?**
Kantxan duen segurtasuna.

# urtarrilak 26 - otsailak 9

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.eus** edo **948 63 54 58**

## Ikus-entzunezkoak



BERA | 2017.01.28

### 'Karta Astrala' dokumentala ikusgai Beralandetan

Maite Bidarte lesakarrak eta Koldo Garciak zuzendutako *Karta Astrala* dokumentala ikusteko aukera izanen da Berako Goldatz Emakume Taldeak antolatu duen Kultur Asteburu feministan.

## Antzerkiak



IRURITA | 2017.01.29

### 'Bi izarren kalenturak' helduendako antzerkia

Antzerki hau bi emakumeren arteko maitasun/gorroto sentimenduen talka eta norgehiagokaren kontaketa da, komedia klabean. Iñake Irastortza eta Ane Gabarain aktore ezagunek antzeztuko dute.

## Ikus-entzunezkoak



ZUBIETA | 2017.02.04

### Argibel Eubarekin 'Basker' dokumental suediarraren aurkikuntzaz

Argibel Euba etnologoak Suediako telebistak 1963an Euskal Herrian eginiko grabaketa batzuk berreskuratu ditu eta horien inguruko ikerketa eta identifikazio lana egin du. Hori aurkeztuko du Zubietako eskolan.

## Hitzaldiak

ELIZONDO

**Esne sektorearen etorkizuna hizpide**

**Urtarrilaren 28an** Hizlariak Migel Joxe Ariztia (Amaiurko baserritarra), Oier Billanueva (EHNE) eta Mikel Hiribarren (ELB) hizlariekin, 11:30ean Arizkunenean.

**Baztango haraneko historiari buruzko hitzaldi zikloa**

**Otsailaren 10ean** 20:00etan Kasinon.

LESAKA

**Carlos Gonzalezen hitzaldia**

**Urtarrilaren 29an** *Maitasunarekin haziz: diziplinaren inguruko mitoak apurtuz eta gatazkarik gabeko elikadura*. Harriondoa Kultur Etxean 11:00etan. Sarrerak *www. centrodasya. com*-en (20 euro).

BERA

**Baserrien jatorriaz hitzaldia**

**Urtarrilaren 26an** Alberto Santanarekin, 12:00etan Beralandetan.

**Kultur Asteburu feminista**

**Urtarrilaren 28an** *King Kong Teoria* liburuaz solasaldia eta hausnarketa. 17:00etan Beralandetan.

## Ikastaroak

ELIZONDO

**Fruta arbolak kimatzeko ikastaroa**

**Otsailaren 4an** Xabier Akizurekin, Arizkunenea Kultur etxean. 09:00-13:00 / 14:00-17:00. Izen-ematea urtarrilaren 27ra arte.

ETXALAR

**Xaboia egiten ikasteko tailerra**

**Otsailaren 4an** 11:00etatik 13:00etara pilotalekuan.

## Ipuin-kontalariak

BERA

**Eneko Haritza**

**Urtarrilaren 27an** 18:00etatik aurrera Herri liburutegian. 4-8 urte arteko haurrentzat.

## Antzerkiak

IRURITA

**Helduendako antzerkia**

**Urtarrilaren 29an** *Bi izarren kalenturak*, Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

BERA

**Poesia antzerkitua**

**Urtarrilaren 29an** *Autobiographikal* 19:00etan Ikuilun.

## Ikus-entzunezkoak

BERA

**Kultur Asteburu feminista**

**Urtarrilaren 28an** *Karta Astrala* dokumentala ikusgai, Maite Bidarte lesakarrarekin. 19:30ean Beralandetan.

**Gutik Zura dokumentala**

**Otsailaren 4an** 19:00etan Kultur Etxean.

ZUBIETA

**'Basker' dokumentala**

**Otsailaren 4an** Argibel Euba ikerlariaren lana eskolan, 19:00etan.

## PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Inauteri giroan**

Hasia da aurtengo mozorro besta eta ondoko asteetan ez du etenik izanen. Asteburu honetan, Sunbilla eta Aresok hartuko dute lekukoa. Sunbillan igandean karroza ikusgarriak ikusteko aukera izanen da eta Areson ere gurdiak desfilean aterako dituzte. Heldu den astelehenetik aitzinera joaldunen pulunpa soinuak nagusituko dira, Aurtitz, Ituren eta Zubietako inauterien txanda etorriko delako. Inauteri egun ofizialen aitzinetik, Donamaria, Arantza eta Igantzin ospatuko dituzte.



DONEZTEBE

**Gutik Zura dokumentala**

**Otsailaren 5ean** 18:00etan Zineman.

## Bertsoak

LESAKA

**Nafarroako Bertsolari Txapelketaren Simulakroa**

**Urtarrilaren 28an** Josu Sanjurjo, Julen Zelaieta, Ioar Tainta, Patxi Castillo, Iban Garro eta Eneko Fernandezekin, 17:30ean Arranon.

ERRATZU

**Bertso afaria Zubipuntan**

**Urtarrilaren 28an.** Agin Laburu, Aitor Mendiluze, Iñigo Manzisidor Mantxi eta Sustrai Colinarekin. Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi. 21:00etan.

## Dantzak

ELIZONDO

**Bailableak**

**Otsailaren 12an** Elizondoko Plazan, 12:45ean.

## Ikuskizunak

ELIZONDO

**Ene kantak**

**Urtarrilaren 28an.** *Astonauta* ikuskizun berria 17:00etan Baztan pilotalekuan.

## Inauteriak

SUNBILLA

**Urtarrilaren 27tik 29ra.** Xehetasunak 677. alen.

ARESO

**Urtarrilaren 27an eta 28an.** Xehetasunak 31. orrialdean.

AURTITZ, ITUREN, ZUBIETA

**Inauteriak**

**Urtarrilaren 30 eta 31 eta otsailaren 4 eta 5ean.** Xehetasunak 677. alen.

DONAMARIA

**Otsailaren 3an eta 4an.** Xehetasunak 23. orrialdean.

## Nire aukera



**Ane URRETA SANZ**
Areson bizi den gazte gipuzkoarra

### *«Bizitzan emandako pauso bakoitzean ez dadila ilusioa falta»*

Duela zortzi urte joan zen Villabonatik Aresora bizitzera eta Loidin osatua du kabia «Txomin, Enea eta Telmorekin». Haur hezitzailea da lanbidez eta horregatik, Areson bizitzearen alde onen artean eskola ttikia izatea azpimarratu du «27 haur daude eskolan, ia Villabonako eskolako gela batean dauden bezain beste. Aberasgarria iruditzen zait adin ezberdinetakoak elkarrekin egotea, batez ere elkarbizitzarako». Guraso elkarteak ere paper garrantzitsua du eta hain juxtu, berriki hartu du Anek elkarteko zuzendari kargua «aurrekoak eredu izanik ea zer moduz moldatzen garen lan berri honetan».

Aresoko txokorik gustukoenen artean «herriko plaza» aipatu digu, nahiz eta frontoi estali bat faltan bota «negua oso luzea izaten da estalperik ez bada».

> «Denok ezagutzen dugu elkar eta edozein unetan eta ia edonorekin sor liteke elkarrizketa atsegin bat».

Afizioen inguruan galdetuta, «seme-alaben afizioak bihurtu dira orain nire afizio» esan digu «ongi sentiarazten nau beraiek pozik eta gozatzen ikusteak». Lagunarteko giroa ere maite du «lagunekin elkartu eta meriendatu edo afaltzea. Batez ere ondorengo tertuliengatik. Batzuetan etxeko txikienek aginduta etxeratu behar izaten badugu ere». Eta Villabonako lagunekin elkartzeko beharra ere izaten duela dio «harreman berezia baita txikitako lagunekin eraikitakoa».

Asteburu honetan inauteri giro betean ibiliko dira Areson. Hasteko, ostiralean, eskolako jaialdia izango dute eta eskean dabiltzan gazteei ere irekiko dizkiete etxeko ateak «merienda prestatzen dugu, haurrak mozorrotu eta etxea apaintzen dugu». Lagunartekoak etxera sartzen direnean «zalaparta» izaten omen da nagusi «mahai haundi baten inguruan biltzen gara. Gorkak trikitixa astintzen du beste batzuk dantza egiten duten bitartean eta haurrak ere animatzen dira normalean». Ordubetetxo bat pasa ostean «nahiko dantza, kontu eta barreren ondoren gazteak agurtzen ditugu eta hurakanak alde egiten du etxetik berriz ere gu lauon 'ixiltasunera' itzuliz». Larunbatean berriz, Guraso Elkarteak antolatzen duen karrozan parte hartuko du familia guztiak «dena prest izateko azken lanetan gabiltza».

Eta etorkizunari begira, zoriontsu bizi denak ez du gehiagoren beharrik «eguneroko bizitzan gertatzen diren txikikeriek ilusioa pizten didate eta horrela izaten jarraitzea nahiko nuke».

BAZTAN

**Gizakunde**

**Otsailaren 11n.**

ARANTZA

**Otsailaren 9tik 11ra.** Xehetasunak gehigarrian.

IGANTZI

**Otsailaren 17an eta 18an.** Xehetasunak gehigarrian.

## Kontzertuak

BERA

**Musika Eskolakoen emanaldiak**

**Urtarrilaren 30ean** txistu emanaldia 18:00etan Musika Eskolan.
**Urtarrilaren 31n** perkusio entzunaldia 18:00etan Musika Eskolan.

ERRATZU

**Patxuko Nice**

**Otsailaren 3an** Zubipuntan, 23:00etan.

ELIZONDO

**Neighbor**

**Otsailaren 5ean** Arizkunenean, 19:00etan.

## Azokak

SARA

**Ekoizleen azoka**

**Larunbatero** 08:00etatik 13:00etara frontoian.

## Mendi ateraldiak

BAZTAN

**Baztango Mendigoizaleen irteerak**

**Urtarrilaren 29an** Arizkundik Maulitxera. 07:30ean abiatuta.
**Otsailaren 5ean** Pantxo bentatik Lizartzura, 07:00etan abiatuta.
**Otsailaren 12an** Doneztebetik Bostorratzera, 07:00etan abiatuta.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu: **erran.eus** (agenda)

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI**. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO**. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

**SUNBILLA**. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. ☎639 156105.

**LESAKA**. 90 m²ko pisua salgai herrigunean, Bittiria karrikan. Zaharberritzeko. 4. pisuan. Igogailuarekin.110.000 euro. ☎636 827980.

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**BERA**. Zalain auzoan pisua errentan emateko. 2 logela. Mobleztatua. Tximiniarekin. ☎629 534928.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

**TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik**

**IRUÑEA**. Pisua errentan eman nahi da, unibertsitatetik 5 minutura oinez. Bizitzera sartzeko prest. Interesatuak deitu zenbaki honetara. ☎618 598 118.

**LEITZA**. Elgoien 59an, 60m²ko pisua salgai. Igogailua, trastelekua, garajeko marra, 2 logela, komuna, egongela-sukaldea. Prezioa: 108.500 euro. ☎650 623189.

**BERA**. Caro Baroja karrikan, pisua errentan emateko. ☎948 630397 / 680 781648.

## ETXEBIZITZAK
### errentan hartzeko

**Bikote euskaldunak etxea** errentan hartu nahiko luke, Malerreka inguruan. Ahal dela **terreno puska** batekin. ☎609 733267.

**ELIZONDO**. Pisua errentan hartzeko. Seme-alabak ditut beraz 3 logelako pisua beharko nuke. ☎604 243558.

## GARAJEAK/LOKALAK
### salgai

**ELIZONDO**. Txokoto auzoan lokala salgai, 60.000 eurotan. ☎948 581 499 / 699 008724.



## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan emateko

**BERA**. Illekueta auzoan garaje itxia errentan emateko. ☎646 280396.

## LURRAK/ORUBEAK
### salgai

**IGANTZI**. 19.000 m²ko lurzatia salgai, borda batekin eta herritik hurbil. ☎650 831395 / 662 386899.

**ITUREN**. 331 metroko lur zati bat salgai. Lasaga auzoan. Interesatuak deitu inongo konpromisorik gabe. ☎678 855056.

## LANA
### eskaintzak

**On-line lanean aritzeko** zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

**Etxetik lan egiteko** jendea behar da, ordenagailutik aplikazioak jeisteko. ☎676 512918 / 618 811 450.

LESAKA. Ordoki Altzariak enpresan **altzari muntaian orduka** lan egiteko pertsona bat behar da. ☎629 687171.

**DONEZTEBE.** Ostatu batean zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. Bidali curriculuma whasapp bidez ☎680 456871.

35 urteko saratar **elbarritu batentzako laguntzaile bat behar** da. Asteburuetan aritzeko egun eta gau bat. Dinamikoa, indartsua eta esperientzia pixkat daukana. (00 33) 610 752171 / *patxi.dutournier@gmail.com*.

**ZUGARRAMURDI**. Altzatenea jatetxean zerbitzaria behar da astebuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez dakiena eta esperientzia pixka batekin. ☎948 599187.

**ARIZKUN**. Zurgindegian langilea behar dute egun osoz aritzeko. Zurgintza ezagutza edota esperientzia izatea baloratuko da. ☎699 953257.

## LANA
### eskariak

**Gizonezkoa lan bila**. Atzerako hondeamakina gidatzen lan egindakoa, lur mugimenduetan eta hondeatzen. Orokorrean igeltsero. Zoru- eta azulleju-jartzailea, oro har. Oso trebea. Segituan ikasten dut. ☎609 422824 / 948 510665.

**MALERREKA edo BAZTANen** emakumea lan bila: dendan, ostatuan... Esperientziduna. ☎633 632823. Whatsappak onartzen dira.

**Emakumea** interna edo orduka adinekoak zaintzeko **lan bila**. Esperien-

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 57 €

**Zerri gizena**
1,133 € kiloa.

**Zerramak:**
0,710 € Kg/bizirik.



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

**Idixkoak: €/kg. Kanal**

| | |
|---|---|
| **Extra** | 4,19 |
| **1.koa** | 3,96 |
| **2.koa** | 3,78 |

**Urruxak: €/kg. Kanal**

| | |
|---|---|
| **Extra** | 4,27 |
| **1.koa** | 4,00 |
| **2.koa** | 3,83 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 160,00
idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 140,00
idixkoak 180,00

**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,11/3,21
Zaldi-behorrak: 1,87/2,07

**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 8,20/9,20
8-10 kilokoak: 7,30/7,70

tzia adinekoak zaintzen, haurrak eta garbiketa lanetan. ☎635 296717.

Eskualdean **gizonezkoa lan bila**. Aziendekin esperientzia baita margo lanetan ere. Edozein lan ikasteko prest. Adinekoak zaintzen, margo lanetan, abeltzaintzan aritzeko prest. ☎698 285544.

**LEITZA.** Emakume batek lan eginen luke adinekoak zaintzen, interna edo externa moduan. ☎631 369825.

**Eskualdean** lan bila dabilen **neska gaztea** naiz. Haurrak eta adinekoak zaintzen esperientziaduna. Arlo horietan lan egin nahiko nuke. ☎634 300 764.

Emakume bat eskaintzen da **haurrak zaintzeko** edo **garbiketa lanak** egiteko. ☎686 947418.

**Emakumea** lan bila. **Haurrak eta adinekoak zaindu** eta **garbiketa lanetan** aritzeko prest, interna edo orduka. Haurrak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientziaduna ☎644 863 469.

**ELIZONDO ETA INGURUAN**, lan bila nabilen emakumea naiz. Adinekoak zaintzen, haurrak zaintzen edota garbiketa lanetan arituko nintzateke. ☎631 341849.

**Emakume arduratsua**k adinekoak zainduko lituzke interna moduan. Lesaka edo inguruko herrietan. ☎642 498891.

**Mutil gaztea eta arduratsua** eskaintzen da orduka adinekoak zaintzeko edota animaliak zaintzeko. ☎652 308756.

**ELIZONDO**. Elizondoko 27 urteko neska batek administrari, sukaldean laguntzaile, etxeak garbitzen, zerbitzari edota adinekoak zaintzen lan eginen luke. Kotxea propioa. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako zertifikatuarekin. Adinekoekin esperientzia. ☎649 901395.

**Neska gazte eta arduratsua** lan bila dabil. Dendari lanetan esperientziarekin, umeak zaintzen, zerbitzari... ☎687 222320.




**42 urteko emakumezkoa** lan bila. Interna bezala aritzeko prest. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎631 631036 (deitu edo whatsappez).

## ZERBITZUAK
### denetarik

**LESAKA.** Etxeko tartak egiten ditut urtebetetze eta jaunartzetarako. ☎642 993776.

## MOTORRAK
### salgai

**Volkswagen California Coach T4** salgai. 2.5 TDI 5 zilindroak 102 cv. Nazionala. 335.000 KM. Oso ongi zaindua, beti garajean. Extra asko: portabizikleta, toldoa, *avance* tunela, kalefakzio estatikoa, konbertidorea... ☎630 041480.



## ANIMALIAK
### salgai

**LESAKA.** Bi poni salgai. Biak arrak dira, bat 5 urtekoa eta bestea 5 hilabetekoa. ☎600 403360.



**Betizuak** salgai. ☎655 706073. Edozein duda izanez gero, deitu lasai.






## ANIMALIAK
### galdu/aurkituak

**LESAKA**. Zakurra agertu da abenduaren 24an, Olentzero egunean, Frain auzoan. ☎607 446925.



## DENETARIK
### salerosketak

**ORONOZ**. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

## BEINTZA-LABAIEN
### LABAIENGO OSTATUAREN ALOKAIRUA

Beintza-Labaiengo Udalak 2016eko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa irekian ateratzea Labaiengo Ostatuaren errentamendua.
Lehiaketa honetan parte hartzeko behin-behineko fidantza 300,00 eurokoa da.
Lizitazio prezioa % 20 jeitsi da, beraz, 240,00 €koa izanen da (BEZ kanpo).

Proposamenak gutunazal itxian aurkeztuko dira, Udalak onetsitako baldintzen orrian aipatzen diren agiriekin batera, Beintza-Labaiengo udaletxeko idazkaritzan. Horretarako **epea urtarrilaren 30ean** 10:30ean bukatuko da.

Baldintzen orria interesatuen eskura egonen da udaletxeko idazkaritzan.

Udaletxeko ordutegia: astelehena, asteazkena eta ortziralea, 8etatik 11etara.

Telefonoa: 948 450864 / udala@labaien.org

hemen agertu nahi duzu?
egin zure erosketa erran.eusen
IRAGARKIA 2 aldizkaritan eta interneten 10 EURO

**Baserri baten harria** salgai. Hori kolorekoa da. ☎617 396729.



Repagas **etxeko sukalde industriala** salgai. Oso gutxi erabilia. Edozein txoko edota elkartetarako aproposa. 500 euro. ☎948 450711.



**Logela osoa** salgai: ohea, bi mesanotxeak, armairua eta tokadorea. Egoera hagitz onean (3 urtez erabilia). Haritzez egindakoak. Altzariak banaka saltzeko prest. Prezio interesgarria. ☎630 693173 (19:00etatik aitzinera).



## DENETARIK
### galdu/aurkituak

Abenduaren 24an, Olentzero egunean, Berako plazan eskuz egindako tokila beltz bat galdu genuen. Faborez norbaitek aurkitu baldin badu deitu ☎635 701610.

# Etxeko ttikienentzat jolasak **Ttipi-Ttapa**ren atal berrian

# PLAZAN BAZAN

Maripurtzil eta Pelloziri bixkiak bisitan etorri zaizkigu jostatzeko gogoz!
Ehunka denborapasa ekarriko dizkigute aldiro-aldiro Ttipi-Ttapara. Ez galdu aukera!




## LASTER INTERNETEN ERE BAI !




Egilea: **Garbine Ubeda**




Ai ene, hori azkura. Orrazia pasa eta pasa, baina halere, hamarretik sei zorri harrapatu ditu, eta lau libratu egingo dira. **Zeintzuk?**

Soluzio guztiak urtebetetzeen atalean



## SUDOKUA

Bete zuriz dauden laukiak letik 6rako zenbakiak erabiliz. Gogoratu zenbaki bakoitzak **behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | | 5 | 6 | |
| 4 | | | | | 1 |
| | | | 3 | 5 | |
| | 3 | 6 | | 1 | |
| | 5 | | | | 3 |
| 3 | | 2 | 6 | | |

## BAI BITXIA!!

Itsaspean aurkitu beharko ez genituzkeen elementuak daude hemen. **Zeintzuk dira?**



## ZAZPIKOA

Bila itzazu bi irudi hauen artean dauden **zazpi aldeak**



PUBLIZITATEA

Aurki itzazu **Ttipi-Ttapako atalak** hitz zopan

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | Y | U | Y | D | J | F | A | G | E | N | D | A |
| B | E | L | K | I | F | E | F | E | G | N | D | H |
| O | L | R | I | I | J | C | W | R | N | J | J | E |
| U | A | Z | K | U | R | K | S | E | D | X | A | R |
| E | Y | A | M | A | I | O | E | U | N | C | Z | R |
| N | M | Q | X | G | T | R | L | F | U | P | W | I |
| E | B | Q | I | R | E | U | I | A | X | I | O | Z |
| B | P | O | H | Q | W | B | T | T | I | Y | N | H |
| T | F | R | G | N | M | E | O | T | Z | A | Y | E |
| C | T | E | A | E | D | E | E | P | I | I | J | R |
| S | E | T | M | A | P | N | H | J | S | K | A | R |
| M | Q | V | E | E | E | N | W | E | D | E | I | I |
| O | E | R | R | E | P | O | R | T | A | J | E | A |

Agenda
Iritzia
Kirola
Erreportajea
Merkatu ttikia
Herriz herri

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7-1 | 31770 LESAKA
**www.erran.eus** | info@ttipi.eus

# urtebetetzeak

Argazki soila: **5€**; bikoitza: **10€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



**Andres Alzugarai Contreras**ek urtarrilaren 17an 5 urte bete ditu. Zorionak Almandozko aitatxi, amatxi eta familia guztiaren partetik.



Zorionak Zubietako **Enaitz Elizalde Mariezkurrena**ri urtarrilaren 18an 4 urte bete dituelako, berexiki, Oier, Nahia, Ainhitze, Ekhi eta Naroaren partetik.



Doneztebeko **Iraide Gogortza Etxeberria**k 3 urte bete ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu asko politte!



Zorionak **Alain** bi urte bete dituzu, gu irribartsu zuri begira. Muxu handi bat maitia Arantzako eta Zarautzeko familiaren partetik.



Leitzako **Maddi, Jare** eta **Nahiak** bi urte bete dituzte urtarrilaren 19an. Muxu handi bana etxekoen partetik!




Zorionak **Mikel**! Bertze urte batez ere etxetik urrun baina maitasunak ez du kaiolarik. Besarkada haundi bat familia guztiaren partetik. Maite zaituztegu! Euskal preso eta iheslari guztiak etxera orain!



Arraiozko **Aiora Arraztoak** urtarrillaren 22an 4urte beteko ditu.Zorionak Arraiozko familia guziaren partetik, aita, ama ta berexiki bere anai Oinatzen partetik. 4 Muxu haundi gure etxeko printzesari



Lesakako **Hegoi Zelaietak** 3 urte bete ditu urtarrilaren 16an. Zorionak eta muxu pila Lesakako familia guztiaren partetik!



Zubietako atautxi **Juan** eta **Enaitz Elizaldek** urteak bete dituzte urtarrilaren 14 eta 18an. Zorionak eta muxu haundi bana Legasa eta Zubietako familiaren partetik, berexiki Nahia, Janire, Aimar, Maren, Naroa eta Maddiren partetik.



Igantziko **Jon Aranguren**ek 4 urte bete ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat zure bi amatxi, guraso eta berexiki zure arreba Haizearen partetik.



**Hegoi Zelaieta** lesakarrak 3 urte bete ditu urtarrilaren 16 an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko gixon ttikiari ama eta attaren partetik!



Amona eta attonak, birramona-birrattonak, atta ta ama zatena zate, Guretzat kristonak. Oroittuz momentu onak, dantza, algara eta bromak. Eskerrik asko ta bihotzez bioi zorionak! Goizuetako **Mañuel** eta **Maritxo**k urtarrilaren 19an 65 urte bete dituzte ezkondurik. Zorionak familia guztiaren partetik.



**Mikel Zabala Ormazabalek** 11 urte beteko ditu ilbeltzaren 29an. Urte askotarako eta egun zoragarria pasa familia guztiaren partetik, batez ere zure lehengusu Joanes, Irati eta Kattalinen partetik. 11 musu haundi.



Zugarramurdiko **Garaziri**: Aunitz urtez eta per molts anys! Zein ederra den denbora zure ondoan iragaitea. Ttinka-ttinka eta 10 muxu goxo. Etxekoak.



Elizondoko **Eloisa Rivasek** 3 urte beteko ditu urtarrilaren 30ean eta bere aitak urtarrilaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik!



Goizuetako **Eila Larralde Arotzenak** 4 urte beteko ditu ilbeltzaren 31n. Zorionak politta eta mila muxu.



Aunitz urtez **Izaro** eta **Josu Larraioz Alzuriri** ilbeltzaren 14an eta 28an urteak beteko dituztelako. Arantzako, Urrozko, Oizko eta Donostiako familien partetik, berexiki baserriko kuadrillaren partetik, musuak! Merendu eder batekin ospatuko dugu!



**Naroa Mutuberria Pagola** aranztarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Aunitz urtez eta bortz muxu haundi familia guztiaren partetik.







PLAZAN BAZAN
Emaitzak



| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 5 | 6 | 4 |
| 4 | 6 | 5 | 2 | 3 | 1 |
| 2 | 4 | 1 | 3 | 5 | 6 |
| 5 | 3 | 6 | 4 | 1 | 2 |
| 6 | 5 | 4 | 1 | 2 | 3 |
| 3 | 1 | 2 | 6 | 4 | 5 |



| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | Y | U | Y | D | J | F | A | G | E | N | D | A |
| B | E | L | K | I | F | E | F | E | G | N | D | H |
| O | L | R | I | I | J | C | W | R | N | J | J | E |
| U | A | Z | K | U | R | K | S | E | D | X | A | R |
| E | Y | A | M | A | I | O | E | U | N | C | Z | R |
| N | M | Q | X | G | T | R | L | F | U | P | W | I |
| E | B | Q | I | R | E | U | I | A | X | I | O | Z |
| B | P | O | H | Q | W | B | T | T | I | Y | N | H |
| T | F | R | G | N | M | E | O | T | Z | A | Y | E |
| C | T | E | A | E | D | E | E | P | I | I | J | R |
| S | E | T | M | A | P | N | H | J | S | K | A | R |
| M | Q | V | E | E | E | N | W | E | D | E | I | I |
| O | E | R | R | E | P | O | R | T | A | J | E | A |

berako agenda .eus

Otsaila

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus

BERAKO UDALA
berako kultur batzordea

**04** LARUNBATA
DOKUMENTALA
GUTIK ZURA
19:00
Kultur Etxean



**17** ORTZIRALEA
TAILERRA
LIGHT PAINTING
18:00
Herri Liburutegian

ENDARLATSA HISTORIAN ZEHAR

**24** ORTZIRALEA
Endarlatsako fusilamenduak. Santa Cruz apaiza.
(Jesus Arrieta)
18:30
Beralandetan - Gaztelaniaz

**25** LARUNBATA
Bisita gidatua
Endarlatsan barna
(Aurelio Gutierrez)
10:00
Kultur Etxeko aparkalekuan
Gaztelaniaz

INAUTERIAK 2017

**18** LARUNBATA
EKITALDIA
KALDEREROAK
19:00
Illekuetatik Herriko Etxeko Plazara
Ibilbidea: Illekueta > Altzate > Legia > Zahar Etxea > Eztegara > Iturlandeta > Eztegara > Bidasoa karrika > San Esteban karrika > Herriko Etxea.
* Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Altzateko pilotalekuan



**22** ASTEAZKENA
MUSIKA
INAUTERIETAKO KONTZERTUA
18:00
Kultur Etxean
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

**23** ORTZEGUNA
ORTZEGUN GIZENA
15:45
Suhiltzaileen Parketik Eztegara pilotalekura
* Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan 16:00etan.
Haurrentzako berbena
16:30
Eztegara Pilotalekuan

**26** IGANDEA
INUDE ETA ARTZAIAK
10:00etatik aitzinera
goiz osoan herrian barna
Eztegara pilotalekutik hasita
18:00
Eztegara pilotalekutik Altzateko karrikara

**27** ASTELEHENA
INAUTERIETAKO ASTELEHENA
Goizean zehar
ZINGAR-ARRAUTZEA
19:00-20:00
Batukada Batuklang taldearekin
Altzateko karrikan




# ttipi txartelarekin beti irabazten da!




DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:
**TTIPI-TTAPA**
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T **948 63 54 58** | F. 948 63 54 57
**info@ttipi.eus** | **erran.eus**

# ZOZKETAK

## 677. aleko irabazleak

**Martiko - Lote bat**
Patrizia Baleztena Monako | NARBARTE
**Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera**
Ana Isabel Altzugarai Iparragirre | SUNBILLA
**Irrisarriland - 2 sarrera**
Isabel Barberena Arregi | ELIZONDO
**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Bernardo Mindegia Iriarte | DONEZTEBE
**Ondo ta punto - Kamiseta bat**
Andres Elizalde Agirre | URDAZUBI
**BKZ Abentura - 2 sarrera**
Idoia Lasarte Hernandorena | LEITZA
**Lanku argitaletxea - Liburua+DVD**
Sara Gamio Migeltorena | LEKAROZ
**Lanku argitaletxea - Liburua+DVD**
Julio Jorajuria Arretxea | IRUÑEA




2 SARRERA
**LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA**
www.lesakakoudalkiroldegia.com




TXOKOLATE LOTE BAT
**ARKUPE GOZOTEGIA**
www.arkupegozotegia.com




2 SARRERA
**IRRISARRI LAND**
www.irrisarriland.com

GONBIDAPENAK
**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**
www.eurekamuseoa.es




KAMISETA BAT
**BUATXABAL**
www.buatxabal.eu




GONBIDAPENAK
**CAMELOT PARK**
www.camelotpark.es




# LIBURUAK




- Txokolatezkoa izan nahi nuke
- Istoriorik gabeko ipuin istorioduna
- Lehen hegaldia

elkar
www.elkar.eus

# DESKONTUAK %

AGARA KIROLAK
**BERA** | %5, kirol artikuluetan

kukuka
**DONEZTEBE** | %10, pijama eta barruko arropetan

IrriSarri LAND
**IGANTZI** | %50, sarreran eta %20, tirolinan eta penduloetan

Gureaut TAILERRAK
**ELIZONDO** | %10, bateria eta amortiguadoretan

ttipi-ttapa
**LESAKA** | %10, eskeletan

Semper autoeskola
**BERA/LESAKA** | %10, matrikulan